

TOKIKOM

2023ko urria | 240. zenbakia

aniztasun!

aria

Txaber Sáenz
Ekologia lerro artean

Menu bereziak | Bisitak | Ekitaldi gastronomikoak
Tailerrak | Dastaketak | Eta askoz gehiago

Menu bereziak

Hotel Restaurante Bahía de Plentzia (Plentzia)

Txuleta menua

Bazkaria eta afaria egun guztietan

55 € pertsonako (BEZa barne)

Soilik azaroan

946 77 55 78

Birjilanda taberna (Bakio)

**4 pintxo + Bakioko 2 txakoli
Azaroko larunbat eta igande
eguerdian**

15 € pertsonako (BEZa barne)

946 19 47 50

Gastrobar Aurrabi (Sondika)

Menua

Azaroak 11

35 € pertsonako (BEZa barne)

944 53 19 28

Izarza jatetxea (Sondika)

Menua

Azaroak 18, 19

29 € pertsonako (BEZa barne)

94 453 82 73



www.uribe.eu



jataoondo@jataoondo.org

[UribeTurismo](#)

[@Visit Uribe](#)

[visituribe](#)

Tailerrak eta jarduerak

Ekorlegi elikadura (Bakio)

**Ustiapenera bisita gidatua +
Bakioko km 0 produktuak**

Azaroak 11

11:00

8 € pertsonako (BEZa barne)

Bakioko Turismo Bulegoa:

94 619 33 95

Iturbaltza (Gamiz-Fika)

**Abeltzaintzara bisita eta
% 100eko larre haragiak
dastatzea**

Azaroak 18

11:00

35 € pertsonako (BEZa barne)

656 77 51 63

Txakoli Uriarte (Gamiz-Fika)

Upategira bisita

Azaroak 19

11:00-13:30

15 € pertsonako (BEZa barne)

659 67 45 95

Etxeandia garardauak (Urduliz)

**Garagardoa etxean egiteko
ikastaroa**

Azaroak 25

10:00

30 € pertsonako (BEZa barne)

605 70 79 85

Lastoetxe landetxea (Meñaka)

Txarriboda herrikoia

Azaroak 25

12:00

35 € pertsonako (BEZa barne)

656 70 07 64

Iturriaga (Bakio)

**Ustiapenera bisita gidatua +
landare bat opari**

Azaroak 25

11:00

8 € pertsonako (BEZa barne)

Bakioko Turismo Bulegoa:

94 619 33 95

Bisitak

Etxeandia garardauak (Urduliz)

Taldeentzako bisitak

Azaroak 4, 5, 11, 12, 18, 26

32,5 € taldeko + 1,5 € pertsonako

(BEZa barne)

605 70 79 85

Txakolin Museoa- Txakolingunea (Bakio)

"Udazken tropikala Uriben"

Dastaketa-uztartzea azaldua

Azaroak 19

12:00

Prezio berezia

15 € (BEZa barne)

94 602 85 13

-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  12 Gurean izan da
-  16 Menditik patxadaz... Egurrezko elizak
-  18 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  20 Gai nagusia... Txaber Sáenz Dañobeitia
-  24 Zamudioko Azoka
-  29 Loiuko historia batu da liburu batean
-  30 Artisautza... Idoia Andrés Granado
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Bostorria
-  34 Teknologia
-  35 Baserri mundua
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



24 Lander Aretxabaleta, Zamudioko Azokari buruz



30 Idoia Andrés



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Nahia Coello

Kolaboratzaileak: Einer Larrabeiti, Belen Gana, @txiribita_mundi, Juanjo Ortiz, Joanes Camara Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxa

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza

Publizitatea: Amaia Lekue (688 782 642)

Banaketa: Eragin

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik



EINER LARRABEITI
Psikologoa

solatuta bizitzea osasunerako des-
abantailatsua dala argi daukagu, baina
alkarbizitza be ez da perfektua, eta
horren frogak gure egunerokotasunean
topatu ahal doguz: errepidean, aurreko
autoa aurreratzeko, beragandik hurbil-
hurbil jartzen garenean; norbaitek lehen-
engo aldi ulertzen ez deuskunean,
pazientzia galtzean; garraio publikoan
danok entzuteko moduan berba egiten
daben pertsonengan edota mugikorrean
ikusten ari den bideoak ozenki jartzen
dituenean; zaborra kalean botata edo

Eredu baldin bagara

txarto birziklatuta uztean: semaforoa
berdean jarri bezain laster norbaitek bo-
zina joz presa ematen duenean; aman-
komunean dogun gela erabili eta gero
garbitu gabe uztean... Zer gertatzen jaku
halan jokatzeko?

Lehenengo-lehenengo, norbere
momentuko desirak baino ez gabiliz
kontuan hartzen. Bigarren, beste pertso-
nenganako errespetua ahaztu dogu,
ziurrenik ez dogulako geureganako
errespetu hori sentitzen. Hori guztia
ez dogu txarrak garelako egiten, baizik
eta beldurrean eta defentsan kokatzen
garelako. Eta abiapuntu horretan, ahaztu
egiten jaku norberarenganako errespe-
tua eta besteenganako errespetua bate-
ragarriak dirala, ez dagoala bata edo
bestea aukeratzeko beharrik. Adibidez,
trenetan edo autobusean apal-apal ber-
ba egitean, bestearen isilune beharra
(energia berreskuratzeko behar doguna)

errespetatzen ari gara eta ez dogu gure
burua horregaitik ukatzen. Era berean,
garbiak izatean, gure buruari ingurua
baldintzarik onenetan egotea eskaintzen
deutsagu eta berdin jasoko dabe besteek
be. Kotxea presarik gabe hartzean,
besteak astiro badabilz be, nekatuta da-
gozalako, erreakzio-denpora ezberdina
dabelako edo egun txarra daukielako au-
kerak jarri ahal doguz mahai gainean, eta
lasaitasunez betetzen gara.

Azken finean, dana da bardina
kanpoan eta barruan, ekintza bakoitzean
guk geuk barruan daukagunetik abia-
tzen gara-eta. Zelangoa litzateke gure
egunerokotasuna, beraz, hasieran aita-
tutako egoera horrek errespetuzko eta
erantzunkizunezko portaerengaitik or-
dezkatzen badoguz? Horren eredu izaten
hasten bagara, ideiaz konbentzitzen ibili
beharrean? Zeozer normalizatu gura ba-
dogu, honelako oinarria izan daitela.

Aste berean sententzia bi ezarri ditu
EAEko Auzitegi Nagusiak euskara-
ren normalizazioaren kontra. Zalan-
tza barik, atzerapausok onartezinak dira.
Asko kosta zaigu honaino heltzea eta, ho-
rregaitik, ezin dugu horrelakorik onartu.
Nahikoa da! Kontseiluak dioen moduan,
erantzun bateratu eta irmoa eman behar
diogu, Bilboko manifestazioan, zein
egunerokotasunean.

Euskararen normalkuntza prozesua
bide luzea izan da; lan handia, gogorra eta
sakona egin dogu hainbatek eta herrita-
rrek konpromenez erantzun izan dute be-
ti. Apurka-apurka, emaitza ederrak lortu
ditugu.

Halan da be, oraindino badaukagu
nondik ibili. Ez dezagun ahaztu, gaur-
gaurkoz, Txorierrin bertan ere euskararen

Euskaldunon kontrako tsunamian igeri

kontrako jarrera diskriminatzaileak sufritzen
ditugula. Kasurako, euskara klaseak jasotzeko
gela bat lortzea, oraindik ere oso zaila egiten
zaie AEK-ko kideei zenbait herritan. Bestalde,
gaur egun ere batzuek "poker aurpegia" jar-
tzen dute, euskaraz egiten badiegu.

Euskararen ofizialtasuna kontuan har-
tuta egoerarik "onena" ei daukagunok ho-
rra bagaude, atera kontuak zelan dauden
euskara ofiziala ez den eremuetan! Baina
bitartean, badago jendea ideia berri eraiki-
tzaileekin. Euskaltzale askoren esfortzuz,
esate baterako, Errigora ekimena jarri zen
martxan Nafarroako Erribera aldean eta,
horri esker, instituzioek egiten ez dutena he-
rritarrek lortu dute; hau da, euskararen eta
herritarren aldeko benetako bultzada.

Beraz, halako egoeretan erantzun
bateratu sendoak emateko, euskararen
aldeko instituzioen eta herritarren artean
lotura bat egon behar da aurrera bidea
topatzeko eta konponbide bateratuak lor-
tzeko.



BELEN GANA
Euskera-irakasle erretiratua

Ekipatu
Laneko arropa

Burdirdegia
Pertsonalizatzea eta serigrafia
Kirol-ekipamenduak
Norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) eta lan-segurtasuna

722 819 774 tiendasondika@ekipatu.com

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

BOSCH Service Car Service

DERIO - 946 451 781

Txorierrri Eguna arrakastatsua

a: Iratxe Pirla

Antolatzaileek dagoeneko hurrengo edizioa dute buruan, izan ere, Txorierrri Eguna arrakastatsua baino arrakastatsua-agoa izan da. Txorierrri Eguna urriaren 21ean eta 22an, izan zen Baserri Antzokian eta hara hainbat lagun batu ziren. Eta ez zen harrizkoa izan, antolatzaileek egitarau oparoa prestatu zutelako bi egunetarako, hala nola dantza-erakustaldiak, perkusioa eta bizikleta-ibilaldia.

Zapatu goizean, bertoko ekoizleek euren produkturik onenak eraman zituzten Baserri Antzokira, eta perretxikoak ere ikusgai ipini ziren Zizegorri Zamudioko mendi-taldearen eskutik. Era berean, euskal dantzen agerraldia egin zuten dantza talde hauek: Erandioko Goi Aldek, Sondikako Gorantzaileak taldeak eta Derioko Lainomendik. Miragarri Derioko taldearen dantzariak ere erakustaldi bikaina eskaini zuten bertaratuen gozamenerako. Bestalde, zer jan eta edan izan zen Baserri Antzokian eta, besteak beste, txakolina,

gildak eta gazta-pastelak egon ziren indarrak berritzeko. Umeek eta gazteek ederto pasatu zuten perkusio-tailerrean eta Entzi eta Otsoa musikarien doinuek arratsaldea girotu

Domekan bizikleta izan zen protagonista. Gela Pedagogikoaren gidaritzapean,



sei kilometroko ibilbidea egin zen: Baserri Anzokitik atera, eta Deriotik pase-oa eman ostean Baserri Antzokira itzuli ziren parte-hartzaileak; han ha-maiketako gozoa eta osasungarria zuten zain. Opariak ere zozketatu ziren bertaratutakoaren artean.



Genero-ikuspegiari buruzko dantza-ikuskitzuna Zamudion

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Nahia Rodriguez da irailako irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birezako bazkaria jasoko du sarritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierrriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



genEroa
kale ikuskizuna

KIMUA
• DANTZA KOLEKTIBO •

AZAROAK 18, ZAPATUA
18:00ETAN
FRONTOIAN

Hiru Bat Zamudioko dantza-taldeak kale-ikuskitzuna antolatu du azaroaren 18rako, 18:00etatik aurrera, herriko frontoian. Azaldu dutenez, Kimua Lizartzako dantza-kolektiboak sortutako genero-ikuspegiaren inguruko ikuskizuna izango da. Horrela, euskal dantza tradizionalak oinarritzat hartuta, beste dantza-disziplina batzuk uztartuko ditu ikuskizunak, eta ikusleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

“Gizarteak ezartzen dituen genero rolen, emakumeenganako indarkeria egoeren eta berdintasunaren gaineko hausnarketa egiteko aukera ematen du ekitaldiak, hala nola, koreografia eta musikaren bitartez. Zer da generoa? Eta zein Gen Eroa? Aske dantza dezagun geroa!”, azaldu dute antolatzaileek.

Kirol-kantxa estalien alboak ixteak boto gehien lortu du Derion

Derioko Udalak jakinarazi duenez, ia 400 pertsonak eman dute botoa, partaidetza-aurrekontuen harira. Derioztarrek lau proposamen eduki dituzte bozkatzeko, eta kirol-kantxa estalien alboak ixteak boto gehien jaso du: 1.121 boto hain zuzen. Gainerako proposamenei dagokienez, skate parkea hobetzeak 910 boto eskuratu ditu; txikiparkaren bideragarritasun-proiektuak, 723 boto; eta radar pedagogikoek, 495 boto.

Etxebizitza-eskaria ezagutu nahi du Loiuk



Loiuko Udalak zenbait urte eman ditu hainbat erakunderekin negoziatzen –besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, AENArekin eta ENAIREekin–, Ariztondo-Txiline sektorean etxebizitzak eraiki ahal izateko. Helburua lortuta, orain udalak jakin nahi du zein den etxebizitza-eskaria, eskatzaileen profila eta nahiago duten etxebizitza-araubidea. Horretarako, eskatzaileek inprimakia hartu dezakete udaletxean bertan edo udal-webgunetik deskargatu; hura bete, eta udaletxean aurkeztu edo e-mailez bidali. Inprimakiak aurkezteko epea urriaren 15ean hasiko da, eta urte amaieran amaitu.

Uriarte Gordon neba-arrebak, txapeldunak

a: Nexis

Urriaren hasieran, Cafés Baqué torneoaren finalak jokatu zirelako Bizkaia frontoian. Finalean ia 3.000 zale batu ziren eta emozioa nagusi izan zen harmailetan. Gainera, txorierritar bat, Aiala Uriarte Gordon sondikoztarra, irabazlea izan zen promesen kategorian eta pilota mistoa erabilita. Uriarte Gordon Lezamako Pilota Klubeko pilotaria da, eta Marta Gomez kidea zuela, 22 eta 9 irabazi ziren Olatz Insaustiri eta Irati Betegiri. Bestalde, Amaia Aldai eta Arrate Bergara gailendu ziren final handian, Leire Garairi eta Irati Zabalarri 22 eta 19 irabazita.

Bestalde, hilaren 15an egun handia izan zen pilota mundian, Hiru Hiriburuak

torneoaren finalak jokatu zirelako Bizkaia frontoian. Finalean ia 3.000 zale batu ziren eta emozioa nagusi izan zen harmailetan. Gainera, txorierritar bat, Aiala Uriarte Gordon sondikoztarra, irabazlea izan zen promesen kategorian eta pilota mistoa erabilita. Uriarte Gordon Lezamako Pilota Klubeko pilotaria da, eta Marta Gomez kidea zuela, 22 eta 9 irabazi ziren Olatz Insaustiri eta Irati Betegiri. Bestalde, Amaia Aldai eta Arrate Bergara gailendu ziren final handian, Leire Garairi eta Irati Zabalarri 22 eta 19 irabazita.



Marta Gomez eta Aiala Uriarte

sarraila-denda Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lonja
48160 Derio

Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337


Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

144 eguzki-plaka ipini dira Derioko kiroldegiko estalkian



Derioko Udalak jakinarazi duen moduan, 144 plaka fotovoltaiko jarri dituzte udal-kiroldegian; plaka horiei esker, espero dute eraikinak kontsumitzen duen energiaren % 40 ekoiztea. Udalak 84.161 euroko inbertsioa egin du, eta 76.000 euroko dirulaguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik.

Gogora ekarri dutenez, orain dela hiru hilabete 30 eguzki-plaka ipini ziren udaletxeko teilatuan eta handik hona autokontsumoa ia % 43koa izan da, espero zuten baino % 3 altuagoa. Horrela, us-te dute urteko aurrezpen ekonomiko 4.000 euro ingurukoa izango dela eta karbono dioxidoaren emisioak 7,26 tonatan murriztuko direla. "Jarduera biek erantzuten diete udalak udal-instalazioetan eta eraikinetan eguzki-plakak edota energia eraginkortasuna hobetzeko beste

sistema batzuk jartzearen aldeko konpromiso sendoari", adierazi dute.

Esther Apraiz alkatearen esanetan, "energia garbi eta jasangarrien aldeko urratsak egiten jarraitzen dugu, eta plaka hauek ipinita aurrerapauso garrantzitsua egin dugu energia berriztagarrien eta ingurumenaren iraunkortasunaren alde. Ingurumena gero eta modu irmoagoan babesten gabiltza, ekimen guztietan ingurumen-ikuspegia zainduz eta txertatuz". Bestalde, esan du udalaren kutxan ere ondorio positiboak egongo direla. "Aurreikuspenaren arabera, kiroldegian ipinitako 144 eguzki-plakei esker 20.000 euro inguru aurreztuko dira, eta udaletxeko 30 eguzki-plakei esker, 4.000 euro. Zerbateko garrantzitsua da, beste beharrian batzuei erantzuteko edo udal-zerbitzuak hobetzeko".

Loiuko elkarte guztiek % 50eko igoera izango dute dirulaguntzetan

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, udalak herriko elkarteentzako diru-partida handituko du eta guztiek % 50eko igoera izango dute dirulaguntzetan. Esandakoaren arabera, neurria 2023-2027ko Legegintzaldi Planaren baitan dago eta 2024ko urtariraren 1ean sartuko da indarrean. Igoeraren ordainetan, elkarte bakoitzak udal-ekintza batean hartu beharko du parte. Gaur egun, 14 elkarte daude Loiun eta hainbat arlotan lan egiten dute, hala nola kulturaren, kirolean, motorrean eta gazteen gaitetan.

Durangoko Azoka fantasiaz beteko da aurten

"Fantasia DA!" lelopean, Durangoko Azoka abenduaren 6tik 10era bitartean egingo da 58. aldiz. Aurten aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute; hau da, ez da onlineko azokarik egongo. Gainera, azoka amaituta, "Zu non, han DA!" ekimenari esker nobedadeak eskuragarri ipiniko dira Euskal Herriko hainbat liburutegietan.

"Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsua eta aberatsa izatea da gure fantasia", esan zuen Nerea Mujika Gerediaga elkarteeko presidentea. "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarrea, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren barbaroa, bizigogoia, kulturaren beroa". Informazio gehiago www.durangokoazoka.eus webgunean.

POLITEKNIKA TXORIERRI

hegan egiteko aukerak

Batxilergo eta Lanbide Heziketa
Bachillerato y Formación Profesional

Eman izena!
www.politeknikatxorierri.eus

HETEL



Astrialdiko begirale- ikastaroa Larrabetzun

Urtxintxa eskolarekin batera, Larrabetzuko Udalak astrialdiko begiralea izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroan 18 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, eta ezinbestekoa da euskara-maila ona izatea. Izena emateko azken eguna azaroaren 10a izango da, eta informazio gehiago eskuratzeko jo daiteke 944 320 445 telefono-zenbakira, eskola@urtxintxaeskola.eus helbide elektronikora eta www.urtxintxaeskola.eus webgunera.

Ikastaroa 2023ko azarotik 2024ko maiatzera izango da, eta 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko izango ditu, eta hiru egonaldi egingo dira.

Ikastaroak 450 euro balio ditu eta Larrabetzuko Udalak herrian erroldatutako ikasleei diruz lagunduko die.

Kanpaina solidarioa Lezaman

Oihkoa denez, Lezamako Udalak eta Lezama Saretzen elkarteak kanpaina solidarioa antolatu dute Gabonei begira. Azaroaren 27tik abenduaren 15era, bost euroko txartelak ipiniko dira herriko saltokietan salgai, eta erosleek Gabonetako saski baten zozketan hartuko dute parte. Zozketa abenduaren 18an izango da udal-liburutegian. Batzen den dirua beharrezana duten Lezamako familietara zuzenduko da.

Industriaren eraldaketa digitala errazten du Politeknika Txorierrik



DTAM (*Digital Transformation In Advanced Manufacturing*) nazioarteko proiektuaren azken konferentzia Politeknika Txorierriin egin da. Proiektuak Espainiako, Herbehereetako, Italiako, Greziako eta Bulgariako 10 erakunde biltzen ditu, eta bere helburua da industria-sektorearen digitalizazioa hobetzeko prestakuntza ematea.

Prestakuntza bereziki enpresa txiki eta ertainei (ETE) eta ikastetxeei dago zuzenduta; izan ere, digitalizazioan espezializatutako profil teknikoaren eskaera handia dago, eta ETEek ez dute langileak arlo horretan trebatzeko baliabiderik. Ikastaroak sei prestakuntza-modulu ditu, modu independentean, online eta autoebaluazio-sistema baten bidez egin ahal direnak. Besteak beste, jorratzen dira teknologia

digitalak, sensorika, *big data*, *machine learning*-a, zibersegurtasun industriala eta zeharkako gaitasunak. Horrezaz gainera, DTAMek ikasketa-plana zehaztu du, Europar Batasuneko teknikariak fabrikazio adimendunean tresna digitalak hedatzen trebatzeko. Metodologia zein prestakuntza daude ikastetxeen eta enpresen eskura, euren prestakuntza- eta berrikuntza-prozesuei laguntzeko.

Politeknika Txorierrik prestakuntza dagoeneko ezarri du programa hauetako ikasleen curriculumaren baitan: Industriaren Eraldaketa Digitala eta Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. Azken programa horretako ikasleek, adibidez, Italiako ikasleekin batera sortu zuten industria-datuak jasotzeko sistema bat, eta datuen zibersegurtasuna landu.

Izen-abizenak: _____

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: _____

Helbidea: _____

e-posta: _____

Telefonoa: _____

Urteko kuota, 40 €: _____

Beste bat: _____

IZAN
aikor!
lagun

Kupioa bete eta hona bidali:

Aikor! aldizkaria
Aresti kalea 2, behea
48170 – Zamudio

Bestela, mezua bidali:

747 406 561

Bestela, sartu:

www.aikor.eus



Euskaraldian parte hartu zutenen bi herenek aldatu dituzte hizkuntza-ohitura batzuk

Euskaraldia 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egin zen hirugarren aldiz, eta, egitasmoaren arduradunek jakinarazi dutenez, ariketa gizartearen normalizatu, finkatu eta egonkortu da: Euskaraldia ezaguna da gizartearen, rola hizkuntza-jokaarekin lotzen dira eta ari-guneen funtzionamendua ondo ulertu da. Gainera, azpimarratu dute egitasmoan parte hartu zutenen bi herenek hizkuntza-ohiturak aldatu dituztela, intentsitate ezberdinetan bada ere.

laz 158.440 lagunek eman zuten Euskaraldian izena: % 77,6k *ahobizi*-rola

aukeratu zuten; eta % 22,4k, *belarriprest*-rola. Parte-hartzeari lotutako datuei dagokienez, beraz, % 11,1eko jaitziera egon da, eta, azaldutakoaren arabera, bereziki gazteen izen-imateak egin du behera, eta gizon gutxiagok ere eman dute izena. Parte-hartzaileen adinari erreparatuta, Euskaraldiak 35 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonengan izan du arrakasta handiena; eta lurraldeei erreparatuta, Gipuzkoan. Bestalde, parte-hartzaileen % 81,9k aurreko edizioaren rol bera aukeratu dute, eta aldatu duten gehienek *belarriprest*-rola aukeratu dute azken

edizioan. Entitateei dagokienez, guztira 8.610 elkartek, lantegik eta bestelako erakundeek eman zuten Euskaraldian izena, aurreko edizioan baino % 3,6 gehiagok; euskaldunenak diren gune soziolinguistikoetan handiagoa izan da izen-imatea.

Esan moduan, egiaztatu da Euskaraldia ariketa eraginkorra dela; horrela, parte-hartzaileen bi herenek aldatu dituzte hizkuntza-ohiturak. Esaterako, % 44,7tik % 76,5era igo da bi hizkuntzetan izaten diren elkarrizketetan euskarari eusten diotenen portzentajea; hala ere, zailena izan da orain arte erderaz egiten ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea. Entitateek ere hizkuntza-ohiturak aldatu dituzte: % 10ek lortu dute euskara lehen hizkuntza izatea, eta % 21,3k gehiago erabiltzen dute euskara.

Etorkizunari buruz galdetuta, hiru entitatetik batek erantzun du Euskaraldiak ekarritako hizkuntza-ohiturak mantenduko direla uste duela, eta horretarako neurriak hartuko dituela. Era berean, norbanako gehienek adierazi dute Euskaraldiaren hurrengo edizioan parte hartzeko asmoa dutela.

Txorierriko Udal Euskaltegia, ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKARA IKASTAROA 23/24

Maila guztiak (16 urtetik gorakoentzat)
Ikastaroaren iraupena: urritik ekainera

ORDUTEGI ZABALA

Astean 10 / 7,5 / 6 / 5 / 4 ordu
Autoikaskuntza

Matrikula zatitan ordaintzeko aukera

Dirulaguntzak: Galdetu!

AZKEN PLAZAK: deitu!

#euskarharrigarria

Lezama 90.000 euro zuzenduko ditu partaidetza- aurrekontuen bidez aukeratutako egitasmoetara

Epea zabalduko da Lezaman, herritarrek 2024ko aurrekontuei begira proposamenak aurkeztu ditzaten. Proposamena herrian erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak egin dezake, eta epea azaroaren 5era arte izango da zabalik. Udalak jakinarazi duenez, 90.000 euroko diru-partida zuzenduko du partaidetza-aurrekontuen bidez aukeratutako egitasmoak gauzatzera.

Proposamenak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira liburutegian dagoen hautestontzian, edo hurrengo leku hauetan ipiniko diren postontzietan: Iruris, udal-etxea, Aretxaldeko geltokia, Kurtze, Bolaleku eta Goitioitzako txokoa. Proposamenak online ere egin daitezke.

Azaldu moduan, proposamenek udalaren eskumenekoak izan behar dute, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak eta etorkizuneko gastuak arriskuan jartzen ez dituztenak. Obrei lotutako pro-

posamenen kasuan, egitasmoaren gehieneko kostuak 40.000 eurokoa izan behar du; eta zerbitzu eta jardueri lotutako proposamenen kasuan, 15.000 eurokoa.



Dirulaguntzak, atzerrian hizkuntza ikasten ibili diren eta musika- eta dantza-ikasketak egin dituztenei derioztarrentzat



Derioko Udalak deialdia zabaldu du dirulaguntza emateko, alde batetik, aurreko ikasturtean atzerrian hizkuntza ikasten ibili diren derioztarrei; eta bestetik, aurreko ikasturtean ere musika- eta dantza-ikasketak egin dituztenei. Atzerriko hizkuntza-ikasketen kasuan, dirulaguntzak hegazkin-txartelei eta ostatu-gastuei dagozkien gastuak har-tuko ditu barne. Udalak 13.000 euroko partida zuzenduko du dirulaguntzetara eta eskaerak urriaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira.

Zehatz-mehatz, 4.000 euro zuzenduko dira atzerrian hizkuntza ikastetik eratorritako gastuak ordaintzen laguntzera; eta 9.000 euro, musika- eta dantza-

ikasketei laguntzera. Dirulaguntza baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie. Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da benetan justifikatutako gastuen % 50, eta pertsona bakoitzak gehienez 500 euro jasoko ditu, jarduera bakoitzari esleitutako diru-partida kontuan hartuta. Eskaera gehiegi egiteagatik % 50a emateko diru nahikoa izan ezean, onuradun bakoitzak benetan justifikatutako gastuaren ehuneko bera jasoko du. Era berean, jarduera baterako dirua sobera izanez gero, besteari laguntzeko erabiliko da. Deialdiaren baldintzak www.derio.eus webgunean kontsultatu daitezke.

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857



OAKLAND

ENGLISH

aldeko
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

Ikasturte honetan ere

GURASOLAGUN MARTXAN

Zer da?

Gurasoentzako programa bat da. Eskola bukatu ondoren gurasoak eta umeak parkean bildu eta elkarri euskaraz berba egitea da helburua.

Baina gurasoek ez dute euskara oso ondo jakin behar. Euskara lasai praktikatzeko guneak eskaini nahi dira, euskaraz eroso, lagun giroan eta seme-alabekin aritzeko.

Nola funtzionatzen du?

Talde txikiak osatzen dira, hiru, lau edo bost lagunekoak. Gutxienez astean behin, ordubetez, elkartzen dira. Taldeek non bildu erabakitzeo askatasun osoa dute, baina helburua taldea eskolaren inguruan elkartzea da, eskolako jolastokian, parkean,... Hurrekin batera, jolasean dabiltzan bitartean, parte hartu daiteke.

Nola hartu daiteke parte?

Bi modutan parte hartu daiteke:

1. **Euskara praktikatzuz;** baldintza da komunikatzeko maila nahikoa izatea.
2. **Euskara praktikatzen lagunduz;** hau da, euskara jakinda, beste guraso batzuei laguntzea.

Nori dago zuzenduta bereziki?

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dabiltzan haurren gurasoentzako egitasmoa da, izan ere, haurrentzat oso garrantzitsua da ikustea gurasoek euskaraz egiten dutela zein euskaraz egiten ahalegintzen direla.

Zein da helburua?

Euskara gehiago erabiltzea, etxeko hizkuntza euskara izatea, seme-alabekin euskaraz hitz egitea, ohitura galdu bada berreskuratzea, ikastea, maila hobetzea, euskaraz bizitzea...



Izena emateko

747 447 579

berbalagun.txorierri@gmail.com

antolatzailea

babesleak

laguntzaileak



Animatu eta ireki leihoa euskarari, seme-alabek eskertuko dute!

“Ez dakit kantuen esanahia nolabait galtzen ari den”

Taldeak kontzertua egin zuen Sondikan, Santa Kurtze jaietako egitarauaren baitan. Geroago, Ortiz de Villalba estudiantek atera berria harrapatu dugu, taldekideak bertan buru-belarri ibili baitira azken diskoa prestatzen. Lana Durangoko Azokarako izango da prest, eta gasteiztarrak haren xehetasun batzuk, ahal izan dituenak, kontatu dizkigu.

t: Itxaso Marina

Zer aurreratu ahal diguzu azken lanari buruz?

Bi disko txiki izango dira, eta ez dituzte abesti gehiegi izango; diskoetako batean beste talde batzuen bertsioak egongo dira, eta bestean, gure kantak. Aipatu beharra dago disko bietako abestiak oso ezberdinak direla euren artean; bai bertsioak, bai gure kantak... Halako lan bat egin nahi genuen, nahiko balioaniztuna, eta bide horretatik jarraitu.

Aurreko diskoetatik aldendu zarete?

Kantaren bat aurreko diskoetako abestien antzekoa izan daiteke, beharbada, eta zenbait kantatan dantza-ukitu hori ere ez dugu galdu... Baina esango nuke aurreko bi diskoetatik nahiko aldendu garelako: denetarik dago eta lan bitxia da. Oso erritmo eta musika ezberdinak dira eta ikusiko dugu jendearen erantzuna zein den. Dena dela, guk bihotzetik atera zaiguna egin dugu eta hori hain zuzen plazaratuko dugu. Kantak egiteko orduan, ez gara ibili hau edo bestea “pepinazoa” izan daitekeen edo ez pentsatzen... Bestalde, zenbait doinuetatik urrundu arren, nire ustez, ahotsak eta jotzeko moduak Modus Operandirenak izaten jarraitzen dute.

Ezagutzera eman duzuen lehen bertsioa da Latzen taldearen Laztana, Aiora Renteriarekin batera grabatuta.

Bertsio bakoitzak kolaborazio bat du, eta, egia esan, oso zaila izan da kolaborazio horiek lortzea: ezetz asko jaso ditugu. Pentsa ezazue, Durangoko

Azokaren atarian gaude eta musikariok gure diskoak defendatu behar ditugu. Nolanahi ere, etorri dena ongi-etorria izan da eta kantuak, gainera, oso ondo gelditu dira; oso ezberdinak dira eta oso pozik gaude emaitzarekin. Eta, nola ez, Aioraren lanarekin... Hasieratik feedback itzela egon da gure artean, gustura egon gara elkarrekin, eta grabatutako bideoak ere ikustaldi pilo bat ditu.

“Bihotzetik atera zaiguna egin dugu eta hori hain zuzen plazaratuko dugu”

Hurrengo bertsioa laster izango da kalean, ezta?

Azaroan. Oso talde ospetsu baten abestiaren bertsioa da, eta nahiko bertsio modernoa egin dugu. Talde horrek duela urte batzuk utzi zion musika jotzeari milaka pertsonen aurrean... Baina, Latzenen *Laztana* salbuespena dela, esan behar da bertsioa egiteko aukeratutako abestiak ez direla egileen hit nagusiak.

Beste esparru batzuetan gertatzen den moduan, musika kontsumitzeko era oso azkarra da gaur egun. Nola baldintzatzen zaituzte horrek?

Guk beti esan dugu hau ez dela auto baten piezak egitea. Guk fisikoa ez den pieza bat, abesti bat, saltzen dugu, baina sentimendua, maitasuna... duena eta beste garai batzuetara eraman zaitzakeena, pertsonak gogora ekarri...

Esanahi handia du, eta ez dakit hori nolabait galtzen ari ote den... Kantu bat kontsumitzen dugu eta hurrengoaren zain daude. Abiadura hau ez zait gehiegi gustatzen, egunero egiten eta egiten egon behar delako; eta ez dakit nik gertatu litekeen egiten duenak, hainbeste egin duenez, egun batean gehiagorik ez egitea... Beste abiadura bat egotea gustatuko litzaidake, kantuak hasunartzea, lehen Cdek eta biniloek zuten zentzua berreskuratzea, diskoak osorik entzutea, ze behin entzunda askotan kantuek ez dute askorik esaten... Hala ere, gaur egungo gazteak, eta jendea orokorrean, ez dago horretarako prest. Bata bestean atzean kontsumitzen dugu eta zaila da zirimola horretatik ateratzea.

Kontzertuetan nabaritzen da?

Bai. Bakarrik lauzpabost kantu ezagutzen dituztenez, gainerakoak ez zaizkie interesatzen eta alde egiten dute edo barrara joaten dira; eta gero itzultzen dira, jotzen zabiltzana gustatzen zaielako. Zaila da horren kontra borrokatzea. Nire ustez, gizarte-sareek eta telefono mugikorrek oso eragin handia izan dute portaera horretan. Dena oso azkar doa eta ematen du dena iragarri behar duzula; gaur hor zaude, baina bihar bukatu daiteke.

Nola datoz hurrengo hilabeteak?

Diskoa Durangoko Azokarako kalera-tuko dugu, eta aurkezpen-biraxoa egingo dugu: besteak beste, Durangoko Ahotsenean eta Kafe Antzokian izango gara. Era berean, ateraz joaten diren kontzertuak egingo ditugu, eta plazaz plaza ahaleginduko gara jendea gureganatzen.

“Dena oso azkar doa eta ematen du dena iragarri behar duzula; gaur hor zaude, baina bihar bukatu daiteke”

IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA | Modus Operandi



Betagarrik 30 urte

Hogeita lau urteko ibilbidearen ostean, Betagarri taldea desegin zen eta bere abeslariak, Iñaki Ortiz de Villalbak, beste proiektu bat ipini zuen martxan: Modus Operandi. Taldeak bi lan ditu kalean, *Modus Operandi* eta *Dantza gaitzean* hil arte, eta ska eta rocka oinarritzat hartuta, beste erritmo batzuekin ere ausartu dira, hala nola funka, punka, salsa eta popa. Laster hirugarren lana kaleratuko dute, eta haren promozio-birari ekingo diote.

Hala ere, Ortiz de Villalbak beste hitzordu garrantzitsu, batzuk edukiko ditu datozen hilabeteetan, Betagarri taldearen sorreraren 30. urteurrena harira zenbait kontzertu antolatu dituzte eta. "Urteurrena aukera ezin hobea da berriro zerbait egiteko. Entseguak egiten gabiltza eta esan beharra dago banda oraindik sasoiari dagoela; jendea pozik dabil, eta gogotsu. Printzipioz badakigu kontzertua egingo dugula, abenduaren 20an eta 30ean, Gasteizko Jimmy Jazzen; urtarrilaren 6an, Iruñeko Totem aretoan; eta urtarrilaren 12an eta 13an, Bilboko Kafe Antzokian. Kontzertu gehiagorik egongo den ez dakigu; etorkizunak aginduko du".



SUIT DELUX

Aste magikoak

Atsedeneren iraultza

SUIT DELUXek 45 egun magikotara gonbidatzen zaitu

¿Animatuko zara?



Derio
Derioko seminarioa
Tel. 944 545 147




Leioa
Iparragirre etorbidea, 80
Tel. 944 316 516



Bilbao
Ledesma, 32
Tel. 944 145 875



Ekintzak



Nobedadeak



Edizio
mugatuak



Sorpresak



Produktu
bereziak



Hainbat
ekintza

10 / 23tik 12 / 03ra

www.suitdelux.es

Larruazala esku onetan Txorierrin

1

Gorputzaren organorik handiena izateaz gainera, larruazalak babesten gaitu kanpoko faktoreetatik, hala nola bakterioetatik, substantzia kimikoetatik eta tenperaturatik. "Horregatik oso inportantea larruazal osasuntsua izatea", azaldu digute Bell estetika-zentroko profesionalak. "Larruazal osasuntsua atsegina da ikusmenarekiko eta ukimenarekiko, leuna, irmoa eta bizia. Ondo hidratatuta egon behar du, eta tonu uniformea izan. Era berean, koiperik eta imperfekziorik gabekoa izan behar du".

2

Ezinbestekoa da, hortaz, larruazala egunero eta urtaro guztietan zaintzea; hala ere, merezi du udaren ostean larruazalari arreta berezia eskaintzea. "Eguzkiak eragin handia du larruazalaren zahartzeko goiztiarlean eta melasmak sorrarazi ditzake; eta kasu larrietan, larruazaleko minbizia. Bestalde, kloroak larruazalaren hezetasuna ezabatzen du, mina egiten dio bere babes-barrerari eta, ondorioz, babesgabe uzten du kanpoko erasoan aurrean, adibidez, UV erradiazioaren edo kutsaduraren aurrean; larruazala deshidratatu egiten du", adierazi digute Ederki estetika-zentroko adituek. "Eguzkiak oxidazio-kaltea ekartzen dio larruazalari, eta erradikal askeen alde egiten du: larruazala asko sikatzen da eta pigmentazio-arazoak sortu daitezke. Era berean, poroa ohi baino gehiago zabaltzen da udan, eta garbiketa zorrotza egin ezean, larruazal koipetsuek okerrera egin dezakete", gaineratu dute Elbereth estetika-kabineteko profesionalak. "Eta kloroak eragin txarra du larruazalaren mantu azidoan eta larruazala sentikor bihurtu dezake, baita larruazal erreaktiboetan eragina izan ere". imperfekziorik gabekoa izan behar du".

3

Eguzkitako krema gure aliaturik onena da. Izan ere, larruazalak memoria du: eguzki-erradiazioek kaltea ekartzen diote zelulen DNARI eta etorkizunean azaleko lesioak agertu daitezke. Udaren ostean larruazala bere onera ekartzen laguntzen diguten tratamenduak egitea erabat gomendagarria da, eta hiru maximo hauek kontuan hartu: berritu, bizkortu eta hidratatu. Txorierriko estetika- eta edertasun-zentroetan hainbat tratamendu topatuko ditugu horretarako. Tratamenduen artean aipagarriak dira aurpegiko larruazala garbitzea, esfoliazioa, despigmentazioa, C bitamina, azido hialuronikoa, mesoterapia, radiofrekuentzia eta RGB argia. Tratamenduak edozein adinetako pertsonak hartu ditzakete, eta paziente bakoitzaren beharrezan araberako pertsonalizatu eta uztartu daitezke.

4

Inoiz ez da berandu larruazala zaintzen hasteko. "Oinarritzkoa da larruazala etxean egunero zaintzea eta garbitzea, eta gure adinerako eta larruazal-motarako egokia den krema erabiltzea. Halaber, gomendagarria da aldizka estetika-zentro batera jotzea zainketa profesionalago bila", esan digute Mirets estetika-zentroko adituek. Zentroetan aurpegi-diagnostikoa egingo digute gure larruazalaren egoeraren berri emateko eta ondoen datorkigun tratamendua aholkatzeko. "Saiatuak izan behar dugu, eta larruazala garbi mantentzen ahalegindu. Orbanak eta deshidratazioa ekidin nahi baditugu, larruazala erradikal askeetatik babestu behar dugu, eta arreta hidratazioan jarri. Horrela eutsiko diegu gure larruazalaren orekari eta osasunari", gehitu dute Kalam estetika-zentroko profesionalak.

5

Nolanahi ere, oinarritzko tratamenduez gainera, gure larruazala prestatu dezakegu hurrengo udari begira. "Eguzkitako krema beti-beti erabili behar dugu, eta C bitaminan aberatsak diren tratamenduak hartu, larruazal argitsuagoa izateko eta orbanak saihesten lagunduko digutelako", aholkatu dute Auxi estetika-kabineteko adituek. "Egunero egiten duguna da inportanteena, horren bidez gure larruazala mantentzen eta zaintzen dugu eta. Ez ahaztu oinarritzko eta derrigorrezko keinuak zeintzuk diren: garbitzea, bizkortzea eta hidratatzea. Beroaren eraginez, larruazalak ura galtzen du udan eta horregatik berreskuratu behar dugu", biribildu dute NG estetika-zentroko profesionalak.



944 71 03 04

Otsoane I. Iorja 48150 SONDIKA- BIZKAIA


AUXI@CENTROESTETICOAUXI.COM

@CENTROMEDICOESTETICOAUXI

CENTRO MÉDICO ESTÉTICO

HIDRADERM zure larruazal-motaren araberrako hidratazioa.

HIDROFAZIAL garbitze eta esfoliazio sakonak. **FHOS** hainbat tratamendu bioluminiszentek, zimurrak, markak eta biguntasuna tratatzeko, hidratatzeko eta larruazalaren tonua bategaratzeko.



747 476 645

@bell_centroestetico

Arbolantxa kalea, 2 48170 Zamudio

PROCYON ekipamendua, FHOS BIOLUMINISCENTE kosmetikaduna: detoxifikatzen du, transpirazioa handitu eta larruazala hidratatu. **HYDRAVITAL** ekipamendua, lau urratseko **HYDRO-DERMOABRASIO** sistema: garbitzen du, esfoliatu, zikinkeria kendu eta hidratatu. Larruazalaren arazo guztiak tratatzeko hainbat tratamendu, Anesiko kosmetika erabilita



ESTÉTICA

ORDUTEGIA

MARTITZENETIK BARIKURA 9:30 - 19:00	ZAPATUETAN 9:00 - 14:00
--	----------------------------

GERNIKAKO ARBOLA ETORBIDEA, 12
48160 DERIO

637 728 670 @TEOEDERKI

PIGMENT THERAPY, orbanen kontrako tratamendua: despigmentazio-sistema ez inbaditzailea, melanogenesia erregulatzeko eta mota askotariko orbanak leuntzeko.

MESOBOOST zimurren kontrako tratamendua: larruazalaren geruza sakonenetara ailegatzen da, bertan printzipio aktibo-kopuru handiak ezartzeko.




ESTETIKA ETA MASAJE ZENTROA

20 arte baino gehiago elertasuna zaintzen

Cestero kalea 4, behea 48150 Sondika
944 531 409

Aurpegia eraberritzea, kirurgiarik gabe eta teknika inbaditzaileak erabili gabe. Printzipio aktiboa + esku-teknika. **INDIBA** tresneria aukeran. Silueta birmoldatzeko gorputz-masajeak eta erlaxatzeko **"RITUAL"** masajeak.



Ibaizabal bidea 502, 48160 Derio (Zientzia eta Teknologia Parkea)

www.kalampilates.com

info@kalampilates.com

@kalampilates

INDIBA ACTIVE erradiofrequentzia ez inbaditzailea, oso eraginkorra eta minik gabekoa, zelulak indarberritzeko; ez du bigarren mailako eraginik.

INDIBA ONA Hidrodermoabrasioa (peeling bikoitza) elektroporazioa, Leda eta behe-maiztasuneko terapia uztartzen ditu, azala garbitzeko.



ESTETIKA eta masajeak

ZENTRO MEDIKOA ETA ESTETIKOA

Mungialde etorbidea 29, behea, Derio

616 208 662

944 064 972

EXPERT CLEANSE PRO BY SKEYNDOR aurpegia garbitzea.

PROBIOME PEEL BY SKEYNDOR tratamenduak azidoak erabilita. Bost tratamendu ezberdin, azal-mota bakoitzera egokitzen direnak. **INDIBA** eta **MEGAN** aparatologiarekin tratamenduak.



ESTETIKA ZENTRO PROFESIONALA

BEAUTY COACH

Sollube Plaza 4, 48160 DERIO

www.ngestetica.com

944 541 054

by Nahikari Goienetxea

IKATZ AKTIBATUA: banbu-kanaberaren azalaz egindako ikatz aktibatua da, *Hollywoodeko celebrity*-ek gehien eskatzen dutena hain zuzen. Osagai prestigiotsu honek aparteko propietateak ditu, eta larruazalean emaitza paregabeak nabaritzen dira denbora errekoan. Larruazala garbitzen du, eta berehala argitu. Espresio-lerroak eta hiperpigmentazioak leuntzen ditu, larruazala gaztetuz. Kosmetikaren *Best seller*-a da.

Egurrezko elizak



Goikiriako ermita (Orozko)

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Eliza edo ermita zaharren bat ikustera joaten garenean, harria ikustera ohituta gaude: harria nagusi da hormetan, arku-etan, bobedetan... Baina ez da beti horrela, gure inguruan egurrezko eliza eta ermita dotoreak ere badaude eta.

Jakina denez, baserriak egiteko ere egurra erabili izan da, era bikainean, gainera; hala ere, hurrengo lerroetan elizetako egurrezko arkitekturan ipiniko dugu arreta. Eraikuntzak harrizkoak izan arren, arotzek beti hartu dute haietan parte, zeren edozein arku edo bobeda egin aurretik egurrezko euskarria egin behar baitzen, harriak bere gainean jartzeko. Kasu batzuetan, ez askotan, dena egurrez egiten zen eta horrela ailegatu dira gaur egun arte. Egurrezko benetako artelanak dira. Azken errematea eskaiolazkoa izan zitekeen, egurra estaliz, edo agerian uzten zuten. Gehienetan polikromiaz apaintzen zuten, gaur arte beti horrela heldu ez badira ere.

Ez dago argi harria ala egurra aukeratzeko arrazoia zein zen: egurra merkeagoa da, gutxiago pisatzen du eta errazagoa da margotzen; harriak, bestalde, gehiago iraun dezake eta ez du surik hartzen. Dena den, badirudi arrazoi nagusiak prestigioarekin zerikusi

handiagoa zuela, eta harrizkoa egiteko dirurik ez zuenak egurrezkoarekin konformatu behar. Egurrezko elizak eta ermitak bisitatu nahi izanez gero, gaur egungo arazo nagusia giltzez itxita egoten direla da. Artikulu honetan gutxi batzuk aipatuko ditugu, baina bilatuz gero, gehiago topatuko ditugu, eta ederrak.



Iturrietako San Kristobal (Markina)



Illoroko Santa Marina (Markina)



Ibarrangeluko eliza

Markina aldera joango gara, Barinaga auzora hain zuzen, 9,5 kilometroko paseo erraza egiteko, gehiena errepidetik. Frontoi ondoan aparkatu eta arotzen egurrezko lanaz gozaten hasiko gara, bertan bolatoki eta ferratoki estaliak daude eta. Etxebarrirako bidea hartuko dugu eta laster, ezkerretara, Ibar-gureneko garaia ikusiko dugu, egurrezkoa, ederra, Bizkaian osorik gelditzen diren bakarrenetarikoa. Haren aurretik gorantz doan bidea hartuko dugu, PR BI-23 ibilbidearen markei jarraituz, eta 400 metro eskasera baserri bat topatuko dugu eskuinetara, egurrezko txabola aurrean beste garai bat duena, erdi jausia. Asfaltoa utzi, eta markak baserri bazterretik doaz. Kilometro erdia landa artetik eginda, San Martin ermitara bidaltzen duen seinaleari jarraituko diogu, eta PRa utzi: igoera txiki baten ostean ermitara helduko gara, eta errepidera.


Aurrera egingo dugu Iturrieta auzoko baserri ederren artean eta bidegurutze guztietan ezkerretara eginez; hiru kilometro eskasera San Kristobal ermitara helduko

Ibilbide proposamena

gara. Badago zer ikusi: probalekua eta proba-harriak. Ate gaineko inskripzioa berrerabilitako estela bat da. Ermitara sartuko gara. Era oso onean ez mantendu arren, barruko egurrezko lana ikustea merezi du. Baina horretarako, aurretik Markinako Udalarekin ipini beharko dugu harremanetan, udala@markina-xemein.eus helbide elektronikora idatzita.

Ermita ondo aztertu ostean eta errepidetik beti behera eginez, Galartza auzotik, Barinagara helduko gara; hau da, ibilbidearen hasierara. Hala ere, ez dugu

ibilaldia amaituko: frontoi ondoko errepidetik, Illoroko Santa Marina ermita adierazten duten seinaleei jarraituz eta azken aldapa gogorra gaindituta, esandako ermitara ailegatuko gara. Egurrezko kanpandorre dotorea du, Bizkaian mantentzen den bakarra, eta barrualdea ere egurrezkoa da, ikusgarria, gaur egun biltegi moduan erabiltzen den arren. Ondoko baserrian gazta goxoa erosi daiteke itzulerako bidea hartu baino lehen.



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierrri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA MUNGIA • 946 74 45 75

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

TABERNA GAZTEDEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

HARATEGIA ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Pornografia sexualitatearen irakasle

Ez da erraza nerabe izatea. Nerabezaroa bizitzako etapa konplexu bat da, aldaketa ugari jositako; hazkunde pertsonal eta fisikorako garaia da, esperientziak bizitzeko sasoa, nortasuna eraikitzen doana. Gaur egun, teknologiak ere markatzen du garai hori.

Ingurune digitalak ez die ihes egiten gure gizartearen akatsei, bertan ere genero-indarkeria dago eta aniztasuna ez da kontutan hartzen. Gizartearen akats horiek guztiak emakumeen sexualitatea mugatzen dute, gizonen maskulinitatea definitzen dute eta «araua» jarraitzen ez duen pertsona zigortu egiten dute.

“Pornografia berria”, online, doan eta mugarik gabekoa den horrek, agindu horiei jarraitzen die, eta kalte egiten die nerabeei. 13-17 urte bitarteko nerabeen %62,5ek pornografia ikusi dute noizbait, eta %53,8k 13 urte bete baino lehen ikusi dute. Lehen aldiz, deskuiduan edota lagunen bidez to-

po egiten dute pornografiarekin, baina gero zalantzak argitzeko bilatzen dute eta beren sexu-desira asetzeko haren bila jarraitzen dute.

Nerabeek beraien egunerokotasunean pornografia kontsumitzen dute, euren bizitzan eragina du eta, kasu batzuetan, beste jarduerak batzuk egiteari uzten diote.

Horrela, nerabeen sexu-desira oinarri irreal, bortitz eta desorekatu batzuen gainean eraikitzen da. Nerabeek badakite hori guztia, baina pornografiaren eragina nabarmena da beren sexu-harremanen gozamenean, sexu-desioaren eraikuntzan eta zerk erakartzen dituen erabakitzean.

Sexualitatea eta pornografia modu ezberdinean bizitzen dira generoaren eta sexu-orientazioaren arabera. Emakumeek, nagusiki, eskatu gabeko mezu sexualak jasotzen dituzte. Gizonek kontsumitzen dute gehien eta indarkeriazko edo

arriskuko jarduerak erakartzen dituzte. Nerabe bisexualak eta homosexualak dira askatasunez garatzeko eta deskubritzeko erreferenteak eskatzen dituztenak. Pertsona helduak, berriz, aurreiritziak alde batera utzi eta nerabeen beharrak eta nahiak zeintzuk diren ikasi behar dugu.

Gaur egun, umeei eta nerabeek jasotzen duten sexu-hezkuntzaren bitartez, ez dira arriskuko sexu-praktiketarik edo indarkeriatik babesten. Zoritzarrez, pornografia, hainbat kanalen bidez, sexualitatearen irakasle bihurtu da.

Nerabeentzako gomendioak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak harremanetarako beste modu bat dira nerabeentzat. Baina horiekiko pentsamendu kritikoak garatu behar ditugu: zenbat denbora erabiltzen ditugun, zertarako, etab. Gainera, garrantzitsua da





ulertzea ikusten dugun guztiak edo erakusten diguten guztiak ez duela zertan onuragarria izan; kaltegarri izan daiteke guretzat, nahiz eta hasiera batean ez garen horretaz jabetzen. Horregatik, garrantzitsua da:

- Teknologien erabilera seguruari eta arduratsuari buruz informatzea eta galdetzea.
- Jarrera batzuek, hala nola argazki intimoak partekatzea, ezezagunekin harremanetan jartzea eta abarrek dituzten arriskuei buruz informatzea.
- Pornografiaren atzean dagoen errealitateari buruz galdetzea eta informatzea.
- Konfiantzazko pertsona heldu bati kezka eta egoera arraroak edo deserosoak kontatzea, bai eta atseginak ez diren edo egonezina sortzen dieten esperientziak bizitzen ari diren ere.

- Konfiantzazko pertsona heldu batekin sexualitateari buruzko zalantzak eta jakin-minak partekatzea.
- Baimenak edo onespeneak duen garrantzia argi izatea, bereziki sexu-harremanetan, eta duen garrantzia ematea, gizartean bizi garen pertsona askeak garen neurrian.
- Aniztasunari, genero-berdintasunari, elkarrenganako errespetuari eta abarri buruz bakoitzak duen pertzepzioa lantzea.
- Norberaren eta besteen lehentasunak, gorputzaren autonomia eta baimen edo adostasuna baloratzea.

Familientzako gomendioak

Ez da beldurrik izan behar, ikasteko borondatea besterik ez. Afektibitatean eta sexualitatean eta teknologien erabilera seguru eta arduratsuan oinarritutako hez-

kuntza, hazkuntza positiboaren parte da. Ikaskuntza honetan seme-alabei laguntzea ere familien ardura da, debekatzea ez baita irtenbidea. Pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen badiegu eta elkarrizketarako eta konfiantzarako ingurune bat sortzen badugu, hor jarraitu ahal izango dugu gehien behar gaituztenean, eta, aldi berean, aske hazteko behar dituzten ezagutzak eta autonomia emango dizkiegu. Horregatik, beharrezkoa da:

- Berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarrituta hezte.
- Haien interesak, kezka, etab. ezagutzea.
- Pornografiaren errealitatea eta mitoak erakustea, eta haien eskura jartzea sexualitateari buruz ikasteko dituzten beste aukera batzuk.
- Etapa bakoitzean ume eta nerabeek erakusten duten sexualitatearekiko interesa eta izaten dituzten afektuzko harremanak naturaltasunez hartzea eta lantzea.
- Teknologia, Internet eta sare sozialak ikuspegi positiboarekin hartu eta landu, Interneten erabilera seguru eta arduratsua bermatzeko.
- Elkarrizketarako espazioak sortzea, zer gustatzen zaien, zerk kezkatzen dituen eta abar kontatzeko eroso sentiaraziko dituztenak.
- Izan eredugarri: pertsona helduak ere elkarrekin bizi gara, harremanak ditugu, etab. Gogoratu: beti ari gara hezten, baita ezer egiten ez dugunean ere.



Eguraldia ahotan

Berriketarako gogo duenak, sarritan, beste gairik ezean eguraldia hartuko du hipside. Baliabide erraza da, izan ere, hozkirria dela, sargoria dela, era guztietako iritziak eragiten ditu gurean hain aldakorren den "aroak".

Txorierri hamaika modu ditugu eguraldiaren ñabarduren berri emateko, baina, gai honetara ere heldu zaigu zori-oreko globalizazioa. Txingorra, esaterako. Mundiala da adinekoek zein gazteek berba hori ezagutzea, Euskal Herri luze-zabalean elkar ulertzeko bada ere. Baina, gure

herrietan bestelako berbak ere entzun daitezke, gure haranean hauek: *abazuza*, *inetazia*, *kazkaragarra*. Euskaltzaindiaren hiztegiak, berdin-berdin izan barik ere, hauek jasotzen ditu: *babazuza*, *inatazia* eta *kazkabarra*.

Zirimiri hitzaz gain gure inguruan beste hitz eder asko ditugu ezagutu eta erabiltzeko: *euri-lanparra* (*langarra*), *euri-garrea* edo *euri-lanbroa*. Behin baino gehiago entzungo zenituen hemengo berba hauek: *uriolak* (uholdeak), *lur-jausiak* edo *narrak* (luiziak), *inizituak* edo *justuriak*

(tximistak), *afrontua* (haizea eta euria batera), *inontza* edo *garrea* (ihintza), *leia* (izotza), *ustrukua* (ostadarra)...

Urtaro bakoitzak du bere kolorea Euskal Herrian: udagoiena marroi eta gorrixka, negua zuri-beltzez, ostean, udaberri berde bizia, eta, haren ondotik, uda beilegia. Euskaldun bakoitzaren euskarak ere, berdin-berdin, bere kolorea du, bere ukitua, bere xarma. Adi, erne belarriak, ikasi, gozatu.



“Planetaren hondamend hausnartzeko nire aletxoa jarr

TXABER SÁENZ DAÑOBEITIA | idazlea

Bere hirugarren nobelari, *La sombra del jaguar*, azken ukituak ematen dabilela harrapatu dugu lezamarra. Lan hori ekologiaren eta ama lurraren aldeko mezua duen asmo handiko egitasmo baten parte da. Sáenzek egitasmoaren gakoak esan dizkigu, literatura munduan nola hasi zen azaldu, eta etorkizuneko planak kontatu; ez dira makalak.

t: Itxaso Marina

Ama lurra ardatz nagusia duen nobela-bilduma baten hirugarren lana da *La sombra del jaguar*.

Lehen nobela, *El dios de la lluvia*, 2021eko abenduan kaleratu nuen; eta bigarrena, *Hijos del bosque*, 2022ko abenduan. Nobela independenteak dira, bakoitzean istorio ezberdin bat jorratzen dut, baina hirurek oinarri ekologikoa dute. Egia esan, aurretik idatzitakoa ez da ekologiari lotuta egon, baina, alde batetik, gizarte-sareetan argitaratutako artikuluek, eta bestetik, nire interesak eta kezkek pixkanaka-pixkanaka bultzatu naute benetan kezkatzen nauenari buruz idaztera.

“Besteak beste, legez kanpoko meatzaritza, baso-mozketa indiskriminatua eta zentral hidroelektriko handiak hizpide ditut azken nobelan”

Ekologiari buruz.

Izan ere, begi bistakoa denez, planeta hondatzen gabiltza, eta horren gainean hausnartzeko nire aletxoa jarri ahal badut, bada, pozik. Azken nobelaren lehen zatia, esaterako, Amazonasen gertatzen da, eta bigarrena, Estatu Batuetan. Nobelan hizpide ditut, besteak beste, legez kan-



“iaren gainean i ahal badut, pozik”

poko meatzaritza, baso-mozketa indiskriminatua, isileko ehiza eta zentral hidroelektriko handiak; horiek guztiak oihana suntsitzen dabilta, planetaren biriketako bat dena.

Zenbat lanek osatuko dute nobela-bilduma hori?

Hamar lanek. Egia esateko, gainerako nobelak dagoeneko badituz buruan, eta ondo funtzionatuz gero, baliteke gehiago idaztea.

Zelan funtzionatu dute lehenengo biek?

Oso ondo. Hala ere, neuk egiten dut lan guztia eta horrek ahalegin handia eskatzen du: gizarte-sareetatik hasita salmentetara arte.

Hortaz, autoedizioaren alde egin duzu.

Nobela-bilduma idazten hasi aurretik bi kontakizun-liburu kaleratu nituen argitaletxe baten eskutik, baina ni ez naiz salmenta askoko idazlea eta, beraz, ezin da guztiok jateko adina diru irabazi: norberak, editoreak, zuzentzaileak, maketagileak, liburu-dendak... Azkenean, liburu bakoitzeko euro bat irabazten nuen. Orain, berriaz, eta bakarrik idaztetik bizi ezin arren, 10 euro irabazten ditut. Hori bai, jakina, lan guztia neuk egin behar dut: idatzi, maketatu, promozionatu, saldu...

Zein teknika erabiltzen duzu saltzeko?

Gizarte-sareetan testu bat argitaratzen dudanean begiratzen dut “gustatzen zait” nork sakatu duen, eta idazten diot nire liburuen berri emateko. Hamar

“Ez naiz salmenta askoko idazlea eta, beraz, ezin da guztiok jateko adina diru irabazi: norberak, editoreak, zuzentzaileak, maketagileak...”

lagunetik batek erantzuten du, baina, bueno, urtean 1.000 ale baino gehiago saltzen ditut nobela bakoitzetik. Lan horrek ere denbora asko eskatzen du eta egunean zehar, tarte librerik dudanean, eginez joaten naiz. Kontakizun-liburuak liburu-dendetan ipini nituen salgai, baina egiaztatu dut, zoritxarrez, jendeak nahiego duela Interneten erosi.

Argi-ilunez betetako esparrua da autoedizioa...

Nik Amazonen bitartez egiten dut. Aitortu behar dut ez dela nire santu hartua, guztiok dakigulako zeren ordezkari den, baina oso erraza da dena: maketazioa, portada diseinatzea... Informatika gustatzen zait eta ez dut arazo handirik izaten. Nolanahi ere, haiei bost axola, lardaskeria egiten baduzu edo ortografia-hutsak badaude: liburu bere horretan argitaratuko da eta kito. Baina gauza ona da akatsik ikusiz gero hori berehala zuzendu daitekeela, eta ondorioz, liburu erosten duen hurrengoak ale zuzendua jasoko du. Izan ere, Amazonek ez dizu eskatzen ale-kopuru

zehatz bat inprimatzeko; hau da, aleak eskatu ahala inprimatzen dira. Dena dela, nik eskaera egiten dudana bakoitzean 100 ale eskatu ohi ditut, gero nire kabuz saltzeko. Liburuak eskaintza idatzita eta sinatuta bidaltzen dizkiet irakurleei, orri-markatzaile eta guzti. Hamar liburutatik zortzi nik neuk saltzen ditut; horrek mozkin handiagoa ekartzen dit.

Nolako irakurleak dituzu?

Erregistro zehatza dut haiei buruz, eta esan dezaket % 90 emakumezkoak direla, eta 50 urtetik gorakoak.

Nola hasi zinen Literaturan?

Nik oso lotura handia izan dut musika-munduarekin, gaztetan talde baten – Wilow – abeslaria eta kanta-idazlea izan nintzen eta. Hard rock taldea zen, eta maketa bat grabatu genuen, eta kontzertu batzuk egin... Baina ailegatu zen momentua non zaila zen familia eta zaletasuna uztartzea, eta lehentasunak ezarri behar izan nituen. Urte askoan izan nintzen ezer egin barik, eta 2016ko udan, oporlekuko igerilekuan, umeen lagun batzuen aita ezagutu nuen eta animatu ninduen Espacio Ulises komunitateko kontakizun laburren lehiaketan parte hartzera. Ezetz erantzun nion hasieran...

Baina hobeto pentsatu zenuen.

Gau hartan begiak batu ezinik ibili nintzen, eta azkenean goizaldeko 4etan



“Neuk egiten dut lan guztia eta horrek ahalegin handia eskatzen du: gizarte-sareetatik hasita salmentetara arte”

*“Nire ustez,
inportanteak istorioa
eta irudimena dira,
eta trama sortzeko
gauza izan”*

hasi nintzen lau orriko istorioa idazten, eta amaitu. Nahiz eta lehiaketa ez irabazi, idazten jarraitzera animatzen ninduten lagunak eta ezagunen mezu asko jaso nituen, eta komunitate horretan idazten jarraitu nuen. Handik hilabete batzuetara Playa de Akaba argitaletxearen ordezkariak deitu zidaten haiekin publikatzeko, antza, komunitate horretan irakurle gehien zituen idazlea nintzelako. Serio hartu nuen eta lau orrialdeko kontakizunak 40 orrialdeko istorio bihurtu ziren, eta azken horiek nobela.

Zein liburu argitaratu zenuen argitaletxe horrekin?

Lehenengo eta behin, 50 orrialdeko sei kontakizunek osatutako liburu bat, *Alma de duende*; eta gero, 60 orrialdeko bost istorioek osatutako beste liburu bat, *A orillas del cielo*. Baina gero etorri ziren krisialdia eta COVIDa eta dena bertan behera

gelditu zen. Nik idazten jarraitu nuen eta liburuak nire kabuz argitaratzea erabaki nuen azkenean.

Liburuak Txaber Saeda izenarekin kaleratu zenituen.

Saeda da nire abizenekin egindako jolasa. Gauza da Euskal Herritik kanpoko argitaletxea izanda Dañobeitia ahal edo nahi zuten moduan idazten zutela, eta horregatik erabaki nuen Saeda erabiltzea. Bueno, inoiz Txaber izena ere txarto idatzi dute, ez pentsa (kar-kar). Argitaletxearekin nuen kontratua amaituta, liburu horietako istoriorik onenak hartu, eta *Pasaje a la luna* antologian batu nituen. Nire kabuz nabilenetik benetako izen-abizenak erabiltzen ditut.

*“Bilduma amaituta,
zerbait ezberdin
egiten ahaleginduko
nintzateke,
beharbada; drama
bat, misteriozko
nobela bat...”*

Nolako istorioak dira?

Denetariko kontakizunak dira: dramak, zientzia-fikziozko istorioak, misteriozkoak...

Patroi horri ere jarraituko diozu nobela-bilduman?

Bai, lehenengo nobela zientzia-fikziozkoa da, eta bigarrenak, Europako Mendietan gertatzen denak, drama- eta misterio-ukituak ditu... Genero asko jorratzen ditut, baina batzen dituen haria ekologia da beti.

Nolako idazlea zara?

Nahiko idazkera lañoa dut; ez dut Antonio Galak bezala idazten, baina ezta saiatu ere. Nik batez ere istorioari ematen diot garrantzi handia. Esaterako, Julio Verne da nire idazle kutuna, eta zuen irudimena miresten dut. Nire ustez, inportanteak istorioa eta irudimena dira, eta trama sortzeko gauza izan.

Ama lurrari eskainitako nobela-bilduma amaituta, zer etorriko da?

Lehenengo eta behin, nahiago nuke 10 nobela horiek idatziko banitu; ea ametsa betetzerik dudan! Ametsa bete ondoren, zerbait ezberdin bat idazten ahaleginduko nintzateke, beharbada; ez dakit, drama bat edo misteriozko nobela bat...



Puzzlea

Txaber Sáenz Dañobeitia (Lezama, 1971) administraria da ofizioz, eta nahiko luke egun batean soilik bere grinatik, idaztetik, bizi ahal izan; edo, hori ezean, biak eroso eta estutasun barik uztartu ahal izan. Bien bitartean, ahal den moduan moldatu behar du, bulegoan lan egiteaz gainera, idazteko zein promozio-lanak egiteko eta irakurleei eskariak bidaltzeko denbora ateratzeko. "Astegunetan goizeko 6etan altxatzen naiz idazteko; eta asteburuetan, goizeko 7etan. Pentsa ezazue, etxera arratsaldeko 7etan ailegatzten naiz lanetik, eta bi ume izanda ia ezinezkoa da ordu horretan idazten hastea. Gainera, egunaren arazoak, gertakizunak... izaten dira buruan eta kontzentratzea gehiago kostatzen da. Goizean, lanera joan

baino lehen, berriz, ordubate oso-osorik dut niretzat, gertatzen dena gertatzen dela. Normalean orrialde bat idazten dut egunero".

Istorio laburrak idaztetik nobelak idaztera pasatzea ez da hutsala izan, eta lan egiteko modu berrietara moldatu behar izan du. "Kontakizun laburrak dida batean idazten nituen, baina istorio luzeak eskema txikiek lagunduta idazten nituen. Nobelak, ordea, bestelako kontuak dira: puzzle baten antzekoak dira, inguru-minguruetan ibili edo akatsik egin nahi ez baduzu, idazten hasi baino lehen osatu behar dena. Liluragarria da oso, baina korapilatsua ere bai. Nik 25-30 orriko eskema egiten dut, eta bertan batzen ditut kapituluak, trama... Hala ere, idazten hasi aurretik argi eta garbi izan behar dut istorio osoa nola izango den, eta hori da zailena, hain zuzen. Laurehun orrialde inguruko nobelak idazten ditut, eta korapilatsua da, gehienbat beste lan batean ere bazabiltza". Era berean,

dokumentazio-lan zorrotza egiten du nobela bakoitzari heltzeko. "Orain, azken nobela errepasatzen nabilela, hasi naiz hurrengorako dokumentatzen. Zenbait liburu irakurtzen ditut, Interneten informazioa bilatu...".

Bere esanetan, merkatua duela urte batzuk espero zuen baino hobeto dago. "Argi dago beti gehiago nahi duzula, baina orain dela pare bat urte baten batek liburu bakoitzetik 1.000 ale salduko nituela esan balit, ez niokeen inondik inora sinetsiko; garai hartan 300 ale edo saltzarekin konformatzen nintzen... Gainera, harritzen nau jendea hain fidakorra izateak: idazle ezezagun bat gizarte-sareen bidez hainbat lagunekin harremanetan ipintzen da bere liburuei buruz hitz egiteko, eta hamarretik batek liburua erostea erabakitzen du; hori, nire ustez, fede-aitorra da".

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

“Lehen sektorearentzako laguntzaz gainera, bezeroekin zuzeneko harremana duen erakusleihoa da azoka”

LANDER ARETXABALETA JAUREGI | Zamudioko alkatea

Ohikoa den moduan, azaroaren lehen asteburuan Zamudioko Azoka ospatuko da, lehen sektorearen elkargune garrantzitsuenetakoa dena. Zehatz-mehatz, zapatuan, azaroak 4, Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azoka egingo da; eta domekan, hilak 5, Nekazaritza Azoka; eta egun bietan zehar, Euskadiko Limusin Txapelketa. Hortaz, nekazaritzako eta abeltzaintzako produkturik onenak izango dira Zamudion, baita herriko eta inguruko herrietako artisauen gozokiak eta lana ere.

t: Itxaso Marina

Zein da Zamudioko Azokaren izateko arrazoia?

Azoka, batez ere, kontsumitzaileak eta ekoizleak jai-giroan batzeko aukera da. Izan ere, ekoizleek urtean zehar, mimo handiz, lan handia egiten dute, gure mahaian hurbileko eta kalitateko produktuak izan ditzagun. Hortaz, azokaren helburu nagusia da lehen sektorearentzat laguntza izatea eta bezeroekin zuzeneko harremana duen erakusleihoa izatea.

Ekoizleek euren produkturik onenak ekarriko dituzte Zamudiora; zer topatuko dugu bertan?

Zapatuan, Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokan, 50 postu baino gehiago izango ditugu; eta domekan, 90 postu inguru, zeinetan produktu freskoak topatuko ditugun, hala nola barazkiak, frutak, gazta, txakolina, ezti eta euskal pastela. Era berean, herriko eta inguruko artisauak egongo dira azokan. Gainera, dastatzeak eta dastatze iruzkindunak ere izango dira.

Azokaren baitan, Limusin arrazako abelgorrien txapelketa egin ohi da.

Euskadiko Limusin Ganadu Txapelketa 29. aldiz egingo da aurten, eta haren barruan izango dira emeen lehiaketa, arren lehiaketa, ganadua erakusketa, enkantea eta sariak. Limusin arraza aurten menuaren protagonista ere izango da, gure porrusalda tradizionalaz gainera limusin-katxopoa izango dugu eta.

Bestelako ekintzarik egongo da?

Zapatuan, ohiko bazkariak gain, artisau-garagardoaren dastatze iruzkinduna izango dugu agertoki nagusian, bertoko Drunken Bros enpresa ekoizlearen eskutik; eta domekan, bi dastatze: alde batetik, Idiazabal gaztarena, Jesus Oleagaren eskutik, eta bestetik, txakolinarena, Mikel Garaizabal sommelierak zuzenduta. Bestalde, asteburu osoan zehar, epaimahaiak hainbat kategoriatako sariak baloratuko eta aukeratuko ditu euskal nekazaritzako produktuen artean. Eta, noski, Euskadiko Limusin Ganadu Lehiaketak

kazaritzako produktuen artean. Eta, noski, Euskadiko Limusin Ganadu Lehiaketak

“Beste urrats bat egin, eta zapatu arratsaldean herrigunera zabalduko dugu ospakizuna, Puro Relajo taldearen doinuetara”



ZAMUDIOKO AZOKA



ZEMENDIAK 4-5

GUZTIA KARPAPEAN

4

ZAPATUA

10:00

IX. TXOKOLATE, GOZOKI ETA ARTISAUTZA AZOKA

XXIX. EUSKADIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRI TXAPELKETA

11:00 | ABERE LEHIAKETA (EMEAK)

12:00 | ARTISAU-GARAGARDOAREN DASTAKETA, AZALPEN ETA GUZTI, ZAMUDIOKO DRUNKEN BROS-EN
ESKUTIK

14:00 | LIMUSIN KATXOPOA eta GURE PORRUSALDA dastatuko dira*

* TIKETAK SALGAI, AZOKAN, EGUNEAN BERTAN, 10:00etatik AURRERA. PREZIOAK: URA ETA FRESKAGARRIAK, EURO 1; PORRUSALDA, 2,50 EURO ETA KATXOPOA, 2,50 EURO. ARTISAU-GARAGARDOA ZUZENEAN SALDUKO DA, DRUNKEN BROS TOKIKO EKOIZLEEN ESKUTIK

17:30 | ABERE LEHIAKETA (ARRAK)

19:00 | 'PURO RELAJO' TALDEAREN KONTZERTUA, HERRIGUNEAN

5

DOMEKA

10:00

XXXVI. ZAMUDIOKO AZOKA

XXIX. EUSKADIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRI TXAPELKETA

10:00 | LIMUSIN ABELGORRIEN, ZAMUDIOKO GANADUAREN ETA NEKAZARITZA PRODUKTUEN
ERAKUSKETA

11:00 | XXIX. EUSKADIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRIEN ENKANTEA

11:30 | IDIAZABAL GAZTAIAREN (Jesus Oleagaren eskutik) ETA TXAKOLINAREN (Mikel
Garaizabalen eskutik) DASTAKETA, AZALPEN ETA GUZTI

13:00 | EUSKADIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRIEN TXAPELKETAKO SARI BANAKETA

13:30 | NEKAZARITZA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



bbk

“0 kilometroko produktuen alde egitea da elikatzeko modurik osasungarriena, baita ingurumenarekiko errespetua erakusteko ere”

hainbat jarduera, lehiaketa, enkante eta sari-banaketa izango ditu.

Berrikuntzarik izango da aurten?

Beste urrats bat egin nahi izan dugu, eta zapatu arratsaldean herrigunera zabalduko dugu ospakizuna, tradizioz ekoizleak eta artisauek biltzen dituen karpantik haratago. Hori dela eta, herriguneari kontzertua izango dugu Puro Relajo taldearen eskutik, karpant produkturik onenez eta janariak gozatu ondoren, jendeak jai-giroan disfrutatzen jarraitu dezan.

Nola atonduko da azoka-gunea?

Urtero bezala, karpa erraldoia egongo da eta bertan ekoizleen postu guztiak ipiniko dira. Agertoki nagusia ere izango da, bertan dastatzeak egiteko eta sariak banatzeko. Euskadiko Limusin Ganadu Lehiaketak ere bere karpa izango du, eta han egingo dira ganaduaren erakusketa, enkantea eta sari-banaketa.

Zamudioko Azokak jendetza handia erakarri ohi du; aurten ere horrela izatea espero duzue?

Espero dugu jendea animatzea lehen sektorearentzat hain garrantzitsua den hitzordu honetaz gozatzera eta inguruan ekoizten diren kalitateko produktu ugarietz jabetzea. Izan ere, 0 kilometroko produktuen alde egitea da elikatzeko eta dieta askotarikoa eta orekatua izateko modurik osasungarriena, eta, era berean, ingurumenarekiko errespetu handia erakustea. Zorionez, Zamudion eta inguruko herrietan baditugu kalitate handiko produktuak ekoizten dituzten pertsonak, eta



eredu honen alde egiten badugu, zapore handiz gozatu dugu.

Eta marka guztiak haustea?

Iaz ere marka guztiak hautsi genituen, eta aurten ildo horri eustea espero dugu. Puro Relajo taldea aukera handia izango da horretarako, jende askoren gustuko taldea delako eta jende asko erakartzen duelako. Beraz, espero dugu kontzertuaren aurretik ere jendea azoka ezagutzera hurbiltzea eta bertan izango diren lehen mailako produktuak dastatzeko aprobetxatzea. Horri lotuta, Zamudiora garraio publikoan etortzea gomendatzen dugu, hori baita joan-etorriak egiteko modurik jasangarri-

ena eta seguruena. Nolanahi ere, ohiko lekuak atonduko dira autoz hurbiltzen direnentzat.

Amaitzeko, Zamudioko Azoka San Martin jaien bezpera da; zer aipatuko zenuke aurtengo jaietarako?

Sanmartinak hurrengo asteburuan, azaroaren 10etik 13ra bitartean, ospatuko ditugu. Adin guztietako herritarrek gozatzeko moduko egitaraua prestatu dugu, jai-giroa herriko hainbat txokotatik zabaldu dadin. Hala ere, jaietz errespetuz disfrutatzea da garrantzitsua, bereziki emakumeenganako errespetua erakustia.



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotarikoko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

CB

Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Jaiak gozatzeko prest

Zamudioztarrek San Martin jaiak gozatzeko dituzte azaroaren 10etik 13ra bitartean. Ohikoa denez, Zamudioko Udalak eta Eguraldi Ona jai-batzordeak adin guztietako herritarrek gozatzeko moduko jai-egitaraua prestatu dute, eta lau egunean zehar, besteak beste, musika, tailerrak eta dantzak izango dituzte bertan.

Txupinazoa arratsaldean izango den arren, bariku goizean tailerrak izango dira Kultura Etxean. Pregoia Eileen Mesa arraunlari zamudioztarrak botako du, eta haren ostean gozokiak banatuko dira eta kalejiran irtengo da, Bertoko soinu-tresnen elkarteak eta Gazte Elai taldeak girotuta.

Zapatu goizean, zirku-tailerra egingo da frontoian, eta bertan ere herri-bazkaria izango da eguerdian. Ondoren, koadrilentzako bingo musikatua egongo da. Zamudioko Kamara Koralorekin batera, Zeharka Flute txirula-taldeak kontzertua egingo du arratsaldean, elizan, eta gauean talde hauek igoko dira Sabino Arana plazako agertokira: Ugerda eta Miserabliak. Haien ondoren dj batek ipiniko du musika.

Bestalde, mezaren ostean kopaua eskainiko da elizpean, eta zumba eta euskal zumba saioak egingo dira Kultura Etxean. Arratsaldean, Hiru Bat dantza-taldeak euskal dantzen agerraldia egingo du frontoian, eta eguna biribiltzeko, Sabino Arana plazan dantza-saioa izango da Eingo dantza-taldeak gidatuta. Jaiei amaria emateko, karta-txapelketa antolatuta da astelehenerako. Arratsaldean izango da Adintsuen Etxean eta gutxienez bikoite bakoitzeko kide batek Zamudion erroldatuta izan beharko du".

Eraso sexistarik ez

Aurreko urteetan eta jaietan moduan, eraso sexistarik gabeko jaien alde egingo dute aurtengo sanmartinetan. Horrela, barikuan eta zapatuan, 22:00etatik 01:00etara, puntu morea egongo da jai-esparruaren aurrean eta bertan informazioa eta laguntza ipiniko da herritarren eskura. Horrezaz gainera, eraso sexistarik jasanez edo ikusiz gero, brigada feministaren kideengana jo ahalko da (zapi morea

jantziko dute); edo 633 918 561 telefonozenbakira deitu, 22:00etatik 10:00etara. Gainera, SOS Deiakera deitu ahal da: 112; eta Eusko Jaurlaritzaren arreta-zerbitzu espezializatura: 900 840 111 (24 orduan). Komunikatzeko arazoak dituzten pertsonen sms bat idatzi ahal dute 600 123 112 telefono-zenbakira. Jaietan eraso matxistarik gertatzen bada, Zamudioko Udalak eta Zapata Gorriak herriko elkarte feministak adostutako protokoloa ipiniko da martxan.

Azaroak 10, barikua

11:00 Tailerrak, Kultura Etxean (eguraldi txarra bada, frontoian).

19:00 Txupinazoa eta pregoia, Eileen Mesaren eskutik, Sabino Arana plazan. Gozokiak.

Kalejira, Bertoko soinu-tresnen elkarteak eta Gazte Elai taldeak girotuta.

Azaroak 11, zapatua

12:00 Zirku-tailerra, frontoian.

12:00 Meza.

15:00 Herri-bazkaria, frontoian.

Bingo musikatua, koadrilentzat.

19:00 San Martin XXXV. Kontzertua, San Martin elizan: Zeharka Flute + Zamudioko Kamara Korala.

19:00 Xaukena elektrotzaranga.

22:30 Kontzertuak, Sabino Arana plazan: Ugerda + Miserabliak + Dj.

Azaroak 12, domeka

11:00 Meza nagusia eta kopaua, elizpean.

12:00-13:00 Zumba saioa, Kultura Etxean (eguraldi txarra bada, frontoian).

13:00-14:00 Euskal zumba, Kultura Etxean (eguraldi txarra bada, frontoian).

17:30 Euskal dantzak, frontoian, Hiru Bat taldearen eskutik.

19:00 Eingo dantza egiteko taldea, Sabino Arana plazan.

Azaroak 13, astelehena

16:00 Karta-txapelketa, Adintsuen Etxean.

txantxangorri
gozokiak



Txantxangorri 2
Zamudio
678 996 422

HORTZ KLINIKA

GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ez.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

GOZATU SANMARTINAK!

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**



**TOLDOS
TXORIERRI**

TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782


ZAMUDIO
BATZOKIA

Azaroaren 9tik 12ra

Txarriboda menua:
(porrusalda, odolostea eta giharra)

Arbolantxa, 5 ☎ 846 664 093 / 666 849 324


CEMAN

LANAK ETA BERRITZEAK • ERAIKUNTZAK

Tel.: 944.520.905

info@cemanconstrucciones.com

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



“Gure kabuz hobetzea lortu dugu, inoren limosnaren beharrik gabe”

JESUS SUSTATXA | historiazalea

Jesus Sustatxa loiuztarrak *La anexión expira, la libertad respira* liburua kaleratu berri du, eta bertan herriko historia jaso du erromatarren garairen aurretik gaur egunera arte.

t: Itxaso Marina

“Historia handiko herria da gurea. Hala ere, lehendik ez da hori kontatzeko libururik argitaratu, eta pentsatu dut Bilbotik desanexioa aukera paregabea zela horretarako”, azaldu digu Sustatxak. “Loiuk eta loiuztarrok poztasun handiak bizi izan ditugu, baina zorigaitz asko ere bai. Adibidez, aireportuak herria erdibitu izanak ekarri du iparraldeko herritarren eta hegoaldeko herritarren arteko harremana urria izatea. Gainera, Bilbora 16 urtean anexionatuta egon izanak eragin zuen, alde batetik, utzikeria, eta bestetik, etxebizitza falta zela eta, loiuztar askok herritik alde egitea”.

Sustatxak erromatarren garaia baino lehenagora egin du atzera, herriaren historia kontatzen hasteko, eta liburuan batu du Loiuk gaur egun arte izan dituen aldaketarik eta gertaketarik inportanteenak. Bere argazki-artxiboan arakatu ditu, aurretik egindako lanetan, artxibo probintzian eta Loiuko eta Bilboko udal-artxibategian. Era berean, informazio-iturri eduki du edadeko hainbat eta hainbat herritar. Eta herritarrei dagokienez, loiuztar ospetsuak ere eraman ditu liburura, hala nola Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia izan zena eta Javier Elordui uso-tiroketaren munduko txapelduna izan zena.

“1.800. urte inguruko dokumentu batean jaso zenez, Lauroetako ermitatik hurbil bazegoen erromatarren inskripzio bat: «Vecunienses hoc munierunt»; baina landen emankortasuna eta lu-rrak zeharkatzen dituzten errekek eta iturburuak kontuan hartuta, erromatarren okupazioa baino lehen ere bertan egonlekuak izan ziren ondorioa atera daiteke”. Eskolatzeari lotutako 1840.

eko datua ere batu du. “Garai hartan sei neska zeuden eskolan, eta 20 mutil”. Antzina, eliza ondoan zegoen harri baten inguruan batzen ziren loiuztarrak herriko beharrianak aztertzeko, eta hori ere izan du hizpide. “Ez zegoen udaletxerik eta erabakiak han hartzen ziren, ahoz; eta euria bazen, eliz atarian bertan”.


Aldaketa

Bestalde, Dionisio Ibarrondoren agintaldi gorabeheratsua ere azpimarratu du Sustatxak. “Udalbatza 1931n demokratikoki aukeratu zen arren, hiru aldiz ere utzi behar izan zituzten udal-bulegoak. Azkena 1937ko ekainean izan zen, frankistak herrira sartu zirenean: udalbatza osoa atxilotu, epaitu-edo eta Loiutik urrun espetxeratu zituzten”. Eta luze hitz egin du anexoari eta desanexioari buruz. “Bilboko parte izateak Loiuri abantaila asko ekarriko

zizkiola esan ziguten, baina gezur hutsa izan zen. Desanexioaren ondoren erakutsi zen moduan, gure kabuz bizi izatea eta hobetzea lortu dugu, inoren limosnaren beharrik gabe, eta herri bizia eta aberatsa dugu”.

Loiuk azken urteetan izan duen hiri-gintza-aldaketa ere jaso du liburuan: udaletxea Larrakoetxetik gaur egungo kokalekura ekartzea, frontoia, baserri-inguruen urbanizazioa eta kanalizazioa, babes ofizialeko lehen etxebizitzak eta udaletxea handitzea, batzuk aipatzearren. “Iñaki Gaztañaga alkate ohiak AENArekin izandako auzia ere azpimarratuko nuke: aireportua handitzeko lanak egiten ziren, baina AENAK ez zuen herriari zegokion ordaintzen; Gaztañagak Madrilera jo zuen, eta irabazi”. Beste azpiegitura adierazgarri batzuk ere aipatu ditu, esate baterako, abade-etxeak, eskolak, Loiun izandako hiru ermitak, ingelesen hilerria eta San Pedro eliza.

Liburutik 100 ale kaleratu dira eta ia guztiak Loiuko Azokan saldu ziren; baliteke laster gehiago argitara ematea.



“Sortzea eta disfrutatzea gustatzen zait, presa barik”

IDOIA ANDRÉS GRANADO | joskina eta sortzailea

t: Itxaso Marina

Hamalau urte zituela amari esan zion josten ikasi nahi zuela. Non ikasi topatu, eta zenbait urtean oihalen eta harien artean ibili ostean, zaletasuna alde batera utzi zuen. Hala ere, duela 23 urte Barakaldotik Larrabetzura etorri zen, eta patchwork ikastaroan eman zuen izena. Josteko grina berriro piztu zitzaion, eta josteko makina xumea erosi zuen bere ekoizpen txikia egiten hasteko. Makina hori txiki gel-ditu zitzaion laster, eta hobea zen beste bat jaso zuen opari. Makina horretatik eta sortze-prozesu sakon batetik lagun eta ezagunen artean modan ipini diren hainbat osagarri ateratzen dira, hala nola, nezeserrak, poltsoak, karterak, zorroak, motxilatxoak eta umeentzako kubo sen-tsorialak.

“Halakoak egiten ditut, alde batetik, lasaitasuna ekartzen didalako, eta bestetik, sortzeko beharra askatu behar dudalako. Josteaz gainera, asko gustatzen zait oihalak zertarako erabili eta euren artean nola uztartu pentsatzea. Baina batez ere terapia da niretzat: eskuekin lan egitea oso gomendagarria da, burua entrentenituta izaten delako eta norberaren lanak estimatzen direla ikustea polita delako”. Hasieran, berarentzat eta senide eta



“Osagarriak egiteak lasaitasuna ekartzen dit, eta sortzeko beharra askatzen lagundu”

lagunentzat sortzen zituen osagarriak, baina duela pare bat urte herriko denda batean atondutako azoka txikian hartu zuen parte, eta bere lana ahoz aho zabalduz joan zen. “Egia da harrezkero pertsona gehiagok eskatu didatela hau edo bestea egiteko; hala ere, ezagunen arteko kontua da: niri sortzea eta disfrutatzea gustatzen zait, presa barik. Gainera,

proiektu bakoitzari aurpegia ipintzen diot; hau da, osagarria eramango duen pertsonarengan pentsatzen dut: zer gustatzen zaion eta abar”.

Oihalen zale amorratua da eta liluratzten dute haiei buruz ikertzeak eta material ezberdinekin jolasteak. “Adibidez, material iragazgaitza da *softshell*-a eta okurritu zitzaidan erabili ahal nuela hondartzarako poltsoak eta karterak egiteko. Edo gobelinoa, tapizatzeke erabiltzen dena; bada, beste erabilera bat topatu diot horri eta hiru dimentsioko oihalarekin uztartu dut tote bag bat sortzeko”. Oihal-mota guztiak maitatzen dituen arren, japoniarrak dira bere kutunak. “Berezi-bereziak dira: ehundura, kalitatea, irudiak...”. Oihalak, hariak eta apaingarriak inguruko mertzerietan erosten ahalegintzen da, baina bidaiak ere baliatzen ditu material eta oihal berriak deskubritu eta erosteko. “Joaten naizen lekura joaten naizela, oihal-dendak non



“Proiektu bakoitzari aurpegia ipintzen diot: osagarria eramango duen pertsonarengan pentsatzen dut”

*“Oihal guztiak
aprobetxatzea gustatzen
zait; txiki-txikiak direnak
ere... Beti topatzen dut
zertan erabili”*

dauden begiratu, eta beti erosten dut zerbait. Webguneetan ere arakatzen dut, eta azoketara joaten naiz txartelak-eta hartzera eta kuxkuxeatzera; oihal berriak topatzen ditut, eta haiei lotutako proiektuak ezagutu”.

Esklusibitatea

Gehienbat nahiago du kotoizko artikuluak josi. “Umeentzako gauzak egiten ditudanean ere garrantzi handia ematen diot oihala % 100 kotoia izateari eta produktu kaltegarririk ez izateari. Era berean, asko zaintzen ditut apaingarriak eta beti aukeratzen ditut umetxoek lasai asko erabili ahal dituztenak”. Bere sortze-lanak kolorez betetzea ere maite du. “Edadeko pertsona batentzako zerbait egin behar dudanean, apur bat gehiago kostatzen zait; hala ere, beti topatzen dut diseinua-eta nola egin”. Lagunentzat ez ezik bere buruarentzat ere sortzen ditu hainbat osagarri. “Oihal guztiak aprobetxatzea gustatzen zait; txiki-txikiak direnak ere... Beti topatzen dut zertan erabili. Gauza berriak ikastea ere gustatzen zait, hau edo bestea nola egin pentsatu, tutorialak ikusi...”

Sortze-lan guztiak arduraz apuntatzen ditu koadernoan: bakoitzaren argazkia, erabilitako materialak, neurriak...



*“Nire lan guztiak
bakarrak dira eta beti
dute bereizten duten
zerbait: tamaina,
apaingarria, barruko
forroa...”*

Gainera, oihalei buruzko xehetasunak idazten ditu beste koaderno batean: oihala non erosi zuen, horren prezioa eta ezaugarriak... Lan zehatz horren aurretik sortze-prozesu zaindua dago. “Egia esan, ez dut denbora luzerik josten ematen; lan

handiagoa ekartzen didana da proiektuari nola helduko diodan pentsatzea... Horri lotuta, aipatu beharra dago nire lan guztiak ezberdinak direla: ez dut bi osagarri berdin egiten; bakoitza bakarra da, tamaina ezberdinekoa delako, oihalak modu diferentean konbinatu ditudalako, barruko forrua ezberdina delako, botoi berezia duelako...”. Esklusibotasun hori hain zuzen ere estimatzen dute bere osagarriak erabiltzen dituztenek. “Azken batean, opari originala da, eskuz eginda, bakarra eta kalitateko materialak erabilia egin duena... Nire zaletasunak oso harriera ona eduki du eta jendeare zure lana gustatzea pozgarria da oso”.



“Beste begiradak” argazki-erakusketa

t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Bizkaiko Foru Aldundiak Hazi eta Garatu egitasmoa finantzatzen du. Egitasmoaren helburua hau da: gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen eskubideen alde eta bizitzaren eta naturaren jasangarritasunaren alde lan egiten duten Bizkaiko eragile sozialak ahalduntzea. Horretarako, herri-heziketaren ikuspegi pedagogikotik bideratutako kultura-prozesu komunitarioak bultzatzen ditu, eraldatzaileak ere badirenak.

Horri lotuta, eta Emaús Gizarte Fundazioaren eskutik, 25 pertsona Derioko kaleetatik eta parkeetatik ibili ziren apirilean eta maiatzean, natura zaintzen duten jardunbideen balioa azpimarratzeko eta natura kaltetzen dutenak salatzen. Lantaldearen barruan egon ziren Lantegi Batuakeko, APNABI Autismo Bizkaiko eta Emaúseko ordezkariak. Parte-hartzaileek euren ikuspuntua azaldu zuten argazkien bidez eta lan horre-

tan DAT argazki-elkartearen kideen laguntza izan zuten. Egitasmoa FotoVoz teknika erabilia jorratu genuen: argazkia ateratzeaz gainera, egileak hitz batzuk idatzi behar izan zituen irudiarekin batera ipintzeko. Hortaz, APNABIko egoitzan batu ginen, irudirik onenak aukeratzeko eta lanari ikusgaitasuna nola eman pentsatzeko.

Egitasmoa biribiltzeko, irailaren bigarren hamabostaldian, norberaren argazkiak eta kontaketa ikusgai ipini ziren Kultur Birikan, Derioko Udalaren laguntzarekin. Egitasmoaren emaitza “Beste begiradak” argazki-erakusketa kolektiboa izan zen, eta haren baitan bisita gidatuak ere antolatu ziren, interesdunek argazkietan islatutako ikuspuntua sortzaileen ahotik entzun zezaten. Era berean, *making of-a* jaso zuten argazkiak ere ipini ziren ikusgai, kameraren atzeko ekoizpena nolakoa izan zen ezagutzeko.

Ekimen honi esker, parte hartzeko prozesu bat bultzatu zen eta ahotsa eman zuten historikoki isilarazi diren kolektiboek

eta gizartetik kanpo dau-den edo egoteko arriskuan dauden pertsonen. Horiek Derioko ingurumen-jasangarritasuna hizpidetzat hartu, eta argazkietan islatu zituzten euren begiradak, kezak eta iriztiak.



ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nember poligona | Ebeazare 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 587 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

IZ

ILE APAINDEGIA
946036943

Txantxangorri n2
ZAMUDIO

iz.ileapaindegia@gmail.com

Bostorria

t: @txiribita_mundi / a: pexels

Potentilla reptans. Landare hau oso arrunta da Euskal Herrian eta zelaietan topatu dezakegu, kostaldean zein mendian; larre eta eremu heze samarretan. Hainbat barietate daude; nolnani ere, hostoak bost foliolok osatzen dituzte, eta loreak, hori koloreko bost petalok. Maiatzetik aurrera loratzen dira, eta loretan udazkenara arte egon daitezke. Hostoak eta sustraiak erabiltzen dira, eta loreak ez dira helburu sendagarrietarako baliatzen. Landarea udazkenean eta udaberrian batzen da; ahal izanez gero, irailean eta urrian. Landarea sikatu behar da, eta gehienez urtebetean gorde.

Sukaldean

Historik samurrenak, freskoenak era gazteenak entsaladetan erabili daitezke beste landare batzuekin batera; hala ere, purea egiteko erabili daitezke, edo olio

apur batean salteatu. Hostoetatik C bitaminan oso aberatsa den zukua atera daiteke. Bestalde, loreak maiatzetik abuztura bitartean batzen dira, eta apaingarri moduan erabili.

Barneko erabilera medizinalak

Eragin idorgarriak ditu, hanturaren kontrakoak eta analgesikoak. Zientifikoki egiaztatu denez, baliagarria da beherakoak eta urdaileko eta sabeleko minak arintzeko, baita hileko mingarriak arintzeko ere, bereziki kalanbreak ere izaten badira (infusio edan). Landare hau aho-hanturak eta hortzoietako odol-galera arintzeko ere baliagarria da.

Infusioa: ur litro batean 30 g hosto irakingo ditugu 10-15 minutuan. Anginarik edo aho-hanturarik izanez gero, infusio kontzentratuagoa egin dezakegu, eta gargarak egiteko erabili: ur litro batean 50-60 g hosto irakin, 3 minutuan egosi, iragazi eta gargarak egin.

Kanpoko erabilera medizinalak

Oso eraginkorra da hemorroideak arintzeko; modu bitan egin daiteke:

- Infusioa bederlatzi egunean hartu; hobeto barautan. Hemorroidea oso handia bada, atsedena hartu behar da astebetez, eta gero infusioa berriro bederlatzi egunean hartu.

- Garbitzeko erabili: infusio kontzentratua egin, eta hozten denean, hemorroidea garbitzeko erabiliko dugu. Nahi beste egunetan egin daiteke garbiketa.

Erabilera kosmetikoak

Larruazal-narritadurak arintzeko, infusio kontzentratua erabili dezake larruazala garbitzeko. Beste landare batzuekin batera erabili daiteke, zauriak osatzeko ukenduak prestatzeko. Zimurren kontrako kremak egiteko ere erabiltzen da; larruazal delikatu edo sentikorrenzat ere onuragarria da.

Kontraindikazioak

Heste minberaren sindromea dutenek kontu handiz ibili behar dute bostorria hartzeko orduan, minak areagotu ditzake eta.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezzen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



EL PUNTO BOBO
Españo Creativo

Iturrigane 1 - Sondika
Tel. 946 855 612 - 699 133 157
info@elpuntobobo.com - www.elpuntobobo.com

TXAKURPANDA
peluquería canina

604 91 33 66

DERIO

PsikoNeuro
TXORIERRI

Psikologia eta Neuropsikologia

Derioko Seminarioa, A eraikuntza 3. solairuan

611 172 488
psikoneurotxorierri@gmail.com
@psikoneuro_txorierri

t: Xabier Diaz / a: Freepik

Varsovian ez dituzte muxilak paella egiteko erabiltzen... Bueno, auskalo! Hala ere, ziurtatu dezakegu muxilak uraren kalitatea neurtzeko erabiltzen dituztela; eta ez bakarrik Varsovian, Poloniako beste zenbait tokitan ere bai.

Izaki bizidunak elementu kutsagarriak antzemateko erabiltzea ez da kontu berria. Egiatztatuta dagoenez, erromatarrek txoriak baliatzen zituzten ikatz-meategietan, eta XIX. mendean ere kanarioak erabiltzen ziren grisua arriskutsua garaiz detektatzeko. Japonian, bestalde, bazekiten katuek zoro moduan salto eginenez gero merkurio metal pozoitsuagatik zela; biodetektoreen beste adibide bat.

Muxilak eta beste molusku bibalbo batzuk ura iragaziz elikatzen dira eta oso sentikorrek dira horren kutsadurarekiko. Hori dela eta, Vistula ibaian dagoen dorre batean, kutxa batean, zortzi muxila ipini dituzte, eta edateko ura handik pasatzen dute. Muxilek sentisore batzuk itsatsita dituzte oskola zabalik edo itxita duten antzemateko, eta haietako seik oskola lau minutuan baino gehiagoan itxita badute, hornidura eteten da analisiak egin eta egoera aztertzeko.

Estrategia biohibrido honek teknologia eta sistema biologikoak uztartzen ditu eta Grazeko Unibertsitatean garatu dute, euren ikerketa-lerroetako bat baino ez dela. Izan ere, sentisore berriak diseinatu beharrean, zergatik ez erabili naturan daudenak? Neurgailu hauek lehenengo

Muxilak, aperitiborako baino gehiagorako



pausoa baino ez dira eta dagoeneko hasi dira muxilen beste parametro batzuk neurtzen, adibidez, estresatuta dauden edo ez jakiteko, eta hortaz uraren kalitatea zein den zehatzago ezagutzeko.

Beste ikerketa-lerro bat da ur-arkakusoak erabiltzea. Arkakuso arruntekin zerikusi gutxi duten arren, euren jokabideagatik deitzen zaie horrela: uretan etengabe dabilta mugimenduan eta saltoka; baina krustazeoak dira benetan, eta uraren kalitatearekiko oso sentikorrek. Kasu honetan, ur-arkakusoak kutxan sartzen dira eta euren jokabidea mikrokamera baten bidez jasotzen da: algoritmo adimentsu bat joango da mugimendua aztertuz eta patroiak

identifikatuz, eta arriskurik badago alarma piztuko du.

Gai desberdinekiko sentikortasun desberdinak dituzten izakiak erabilia, sistemak zehaztasun osoz jakin dezake uraren kalitatea zein den, denbora errealean, eta ondorioz, beharrezko neurriak hartu ditzakete arduradunek. Horrezaz gainera, metal berezietan eta metal urriez egindako sentisore elektronikoak erabiltzea ekidin daiteke; are gehiago, sentisore natural hauen sentisibilitate-maila askoz handiagoa da kasu askotan. Beraz, badakizue, muxilarik jaten duzuen hurrengo batean bere lana eskertu beharko diozue aurretik.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIO O LURLANGILEEN ETXEA
1963 - 1990
COOPERATIVA AGRICOLA GANADERA
ZAMUDIO DERIO

Alaia

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talleri, 5
48170 Zamudio
946 850 585

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areiltza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izagazu Facebook-en

Enologia Eguna ospatu zuten Sondikan

a: Juanjo Ortiz

Egun ederra baino ederragoa izan zen urriaren 8koa, eta lagun asko hurbildu ziren Sondikako Goiri plazaraino, Enologia Eguna gozatzerako. Ekintza 13. aldiz antolatu da aurten, eta bertaratutakoek, besteak beste, jatorri-deitura hauetako ardoak dastatzeko aukera izan zuten: Bizkaiko Txakolina, Rioja, Rueda, Navarra, Cava eta Jerez. Taloa, gazta eta gildak ere ipini ziren salgai.



Arroza sardinekin

a: Ekaterina Bolovtsova (Pexels)

Osagaiak:

- 750 ml barazki-salda
- 300 g arroz
- 12 sardina
- 2 berakatz
- 2 tomate
- Piper gorri bat
- Tipulin bat
- Limoi bat
- Perrexila
- Olio
- Gatza

Prestatzeko era:

Berakatzak zurituko ditugu, eta txikitu; tipulina ere txikituko dugu. Berakatzakak olio apur batean ipiniko ditugu kazola batean eta gorritzen hasten direnean gehituko dugu tipulina. Piperra zatitu, eta gehituko dugu. Era berean, tomatea birrinduko dugu eta zartaginera botako dugu. Hamar minutuan egingo dugu. Bestalde, arroza gehituko dugu, eta ondoren, barazki-salda. Gatz apur bat bota, eta 15 minutuan egosiko dugu. Sardinak garbituko ditugu, eta trontzoak arrozaren gainean ipini. Gatza botako dugu, baita olio-zurrusta bat ere. Kazola labera sartuko dugu hiru minutuan eta 200 gradutan. Eginda dagoenean, labetik atera, eta perrexilaz eta limoi-xerrez hornituko dugu.



Prestatzeko era:

Esne beroan txikituko dugu legamia freskoa, eta koilarakadaxo bat azukre bota; ondo eragingo dugu, legamia eta azukrea disolbatu daitezten. Gordeko dugu. Bestetik, arrautzak apur bat irabiatuko ditugu, eta irina zetabatu. Irina katilu batean ipini, eta erdian zuloa egingo dugu; arrautzak, esnea legamiarekin nahastuta, esne-gaina, limoi-birrindura eta bainila-esentzia. Oratuko dugu, ore elastikoa (ez itsas-korra) lortu arte. Mahaia-edo irinez hautsezatu, eta ore bertan oratuko dugu, bola-forma emanaz. Katiluan oliba-tanta batzuk ipiniko ditugu, eta katilu osora zabaldu. Orea katiluan jarri, eta film gardenaz eta zapi batez estaliko dugu; ordubete batean-edo izango dugu har-tzitzen. Bolumena bikoizten denean, ore katilutik aterako dugu. Bolatxoak egin, eta alde bietatik frijituko ditugu. Paper xurgatzailean ipiniko ditugu, olio kentzeko; gainetik azukrea bota ahal diegu.

Limoi-kauserak

a: Freepik



Osagaiak (lau laguntzat):

- 600 g irin (eta apur bat gehiago, mahaia hautsezatzeko)
- 150 g harrotzeko esne-gain
- 100 ml esne
- 3 arrautza
- 20 g legamia fresko edo 10 g legamia siku
- Limoi-birrindura
- 5 ml bainila-esentzia
- 80 g azukre
- Gatz apur bat
- Olio



Zure taxi,
Teorietikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: freepik



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Belarriko kilkerra (Elkar), Uxue Alberdi eta Begoña Durruty
–Mihi-puntaren puntan (Elkar), Xabier Olaso eta Higinia Garay
–Bekatua (Erein), Goiatz Labandibar



LITERATURA: GAZTEAK

–Koralaren distira (Mensajero), Cristina Etxabe eta Maite Márquez.
–Pizatuta gaude denok! (Elkar), Amaia Telleria Mujika.
–Arbola (Pamiela-Kalandraka), Antonio Rubio y Xabier Olaso



Sudokua

		9	2	3			4
			5				7
					4		9 3
			7	4		8	3
7	9		6				2
3		8			5		
8		3					
	4		8	7	9		6
	6				2		4

4	8	7	2	5	3	1	9	6
9	1	3	6	7	8	2	4	5
2	5	6	9	4	1	3	7	8
7	9	4	6	2	5	8	1	3
5	1	2	3	8	6	4	9	7
6	3	8	1	4	7	5	2	9
3	6	5	4	9	1	7	8	2
1	7	2	8	6	5	9	3	4
8	4	6	3	7	2	5	9	1

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de origen

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Ekipatu
Laneko arropa

722 819 774 tiendasondika@ekipatu.com

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Azokak

Zamudio

- > IX. Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azoka. Azaroaren 4an, 10:00etatik aurrera.
- > XXXVI. Zamudioko Azoka. Azaroaren 5ean, 10:00etatik aurrera.

Erakusketak

Lezama

- > "Bizkaia begira, BBK Aretaren ibilbidea" irudi-erakusketa. Urriaren 30etik azaroaren 5era, Hilario Astorki plazan.

Beste Batzuk

Lezama

- > 2024ko aurrekontuetara proposamenak egitea. Azaroaren 5era arte, liburutegian, auzoetako postontzietan eta online. Informazio gehiago: lezama.eus.
- > Azaroak 25: elkarretaratzea eta adierazpena irakurtzea, 13:00etan, Hilario Astorki plazan.



Jaiak

Zamudio

- > San Martin. Azaroaren 10etik 13ra.

Musika

Lezama

- > Ekidazu abesbatzaren eta Behotsik Orkestraren kontzertua. Azaroaren 25ean, 19:00etan, Andramari elizan.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Genero-ikuspegiari buruzko dantza-ikuski-zuna. Azaroaren 18an, 18:00etan, frontoian. Hiru Bat dantza-taldeak antolatuta.

Lezama

- > *El silencio no calla* performancea. Azaroaren 25ean, eguerdian, elkarretaratzearen ondoren, Hilario Astorki plazan.
- > *Maletas mágicas* txotxongiloen ikuski-zuna. Azaroaren 26an, 18:00etan, Kultura Aretoan.

Gau Beltza

Urriak 31

Derio

19:00 Txokolate-jana, kale artean.
19:00 Bayo Showa, herrian zehar.
Gozokiak, tabernetan.

Larrabetzu

17:00 Kalabazak hustu, danborrak prestatu, aurpegia margotu... plazan.
19:00 Ziri edo sari jolasa.
20:00 Kalejira Errebaletik, Lekittoko Deabrukekin batera.
21:30 Gauargi erromeria-taldea, Hori Bai gaztetxean.



AURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com

Gle-apaindegia
Ma Antonia Llodio TXIPI
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

RPS: 184/10
OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Klromasajea
clínica dental **ZAINDUZ** hortz klinika
Txorierriko etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tif. / Faxa: 94 452 29 10

OHIKO LEKUETAN SALGAI



Zorte on!

4

1

3

4

3

STIHL



ZURE LORATEGIA, EZIN HOBEA



Parque Empresarial ASTIKENE
(Junto al aeropuerto de Bilbao)
Calle Beresi 23 Bloque C
48160 (BIZKAIA)



agrojardín
Astikene

info@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com
94 454 06 52 📞 688 633 197